

CULTUR 2014

NAFARROA: KULTURA ETA TURISMOA

Abuztua 1etik - 31era



IRUÑA



LIZASO



ORBAIZETA



ARTAJONA



ELIZONDO



ZUGARRAMURDI



UJUÉ



LOS ARCOS



OTSAGABIA



ORREAGA/RONCESVALLES



MARCILLA



JAVIER



Nafarroako Erresuma
Nafarroa



**Nafarroako
Gobernua**



cultura
navarra.es

CULTUR ABUZZTUA 2014

IRUÑA Baluarteko Ganbara Aretoa JAZZY LEAP NAFARROAKO GANBERA ABESBATZA «DUKE ELLINGTON»	ostirala 01 20.30	PAG. 12
ELIZONDO Foruen Plaza BETAGARRI	larunbata 02 22.00	PAG. 14
ORREAGA/RONCESVALLES Kolegiata ABESBATZ ELKHOS AHOTS-TALDEA	igandea 03 13.00	PAG. 16
LOS ARCOS Andre Maria elizako klaustroa GANBARA JOAQUIN ASIAIN, tenorra & KAMAKO KIMURA, pianoa	astelehena 04 20.45	PAG. 18
TAFALLA Las Pulgas plazatxo JAZZA JEREZ TEXAS	asteartea 05 22.00	PAG. 20
OTSAGABIA Plaza FOLKA KALAKAN	asteazkena 06 22.00	PAG. 22
VIANA San Pedro elizaren hondakinak POPA SERAFÍN ZUBIRI	osteguna 07 21.00	PAG. 24
ZUGARRAMURDI* Sorginen leizea AKELARRE TIERRA -EUSKAL HERRIKO TXISTULARI ELKARTEA	ostirala 08 18.00	PAG. 26
JAVIER Auditorioa ORTZADAR EUSKAL FOLKLORE TALDEA «LIBREA NINÇANA»	Larunbata 09 12.00	PAG. 28
IRANTZUKO MONASTERIOA Eliza ABESBATZ OBERENA KORUA	igandea 10 12.30	PAG. 30
BERA San Esteban eliza GANBARA IGOR PERAL (tenorra) & GONZALO TREVIJANO (pianoa)	astelehena 11 20.00	PAG. 32
FITERO Plaza de las Malvas JAZZA JAVIER LOPEZ JASO- MARCELO ESCRICH QUARTET	asteartea 12 21.30	PAG. 34
IZABA Anfiteatro FOLKA KEPA JUNKERA «SORGINAK»	asteazkena 13 21.30	PAG. 36
ARTAJONA Parque de la Quinta POPA SONIC TOYS	osteguna 14 20.30	PAG. 38
LEIREKO MONASTERIOA Eliza ABESBATZ LIGUORI KORUA	ostirala 15 19.45	PAG. 40

LIZASO Orgiko haritzia KRINELA HIRUKOTEA	larunbata 16 12.30	PAG. 42
LA OLIVAKO MONASTERIOA Eliza SAN JOSÉ ABESBATZA	igandea 17 19.00	PAG. 44
ERRIBERRI Frantziskotarren eliza GANBARA JORGE JUAN MORATA (tenorra) ETA DANIEL GUTIÉRREZ (pianoa)	astelehena 18 19.30	PAG. 46
MARCILLA Gaztelua JAZZA KIKE ARZA 5et	asteartea 19 20.00	PAG. 48
LEKUNBERRI Plaza FOLKA MIELOTXIN	asteazkena 20 20.00	PAG. 50
ORBAIZETA Pilotalekua POPA INOCUA	osteguna 21 20.30	PAG. 52
ZANGOZA Las Arcadas plaza SMOKING STONES	ostirala 22 22.00	PAG. 54
AGOITZ Kultura Etxea ELFENTHAL - opera rocka	larunbata 23 22.00	PAG. 56
UJUÉ Andre Maria eliza ABESBATZ ARANGUREN IBARREKO KORUA	igandea 24 12.30	PAG. 58
GARES San Pedro eliza GANBARA AMAIA AZCONA, sopranoa eta MAITE ASCUNCE, pianoa	astelehena 25 20.30	PAG. 60
ESTELLA-LIZARRA Kultura Etxea JAZZA SMUZquintet	asteartea 26 20.30	PAG. 62
ALTSASU/ALSASUA Dantzaleku FOLKA «LES VOIX BASQUES/LAS VOCES VASCAS» ANNE ETCHEGOYEN ETA AIZKOA KORUAREKIN	asteazkena 27 21.00	PAG. 64
MENDIGORRIA Foruen Plaza POPA TRIPLE SENTIDO	osteguna 28 20.30	PAG. 66
DONAMARIA Jauregi dorrea NUA TRÍO	ostirala 29 19.30	PAG. 68
BARAÑAIN Auditorioa JORGE DREXLER	larunbata 30 21.00	PAG. 70
TUDELA Gaztambide antzokia NOA	igandea 31 20.00	PAG. 72

CULTUR Nafarroako Gobernuak Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako Departamentuak antolatutako programa bat da, astelehenetik igandera 31 herri eta leku berezitan zehar ibiliko dena; horrela, besteak beste Orreagako kolegiata, Zugarramurdiko leizeak, Orgiko hariztia, Irantzu, La Oliva edo Leireko monasterioak, Uxueko Andre Maria eliza edo Martzillako gaztelua bisitatuko ditu.

Aurten, CULTUR jaialdiak berrikuntza handia dakar. Abuztuko egun guztietan kontzertu erakargarri bat eskaintzen duen programa artistikoarekin batera, edizio honetan turismoaren arloko iradokizun bat egingen da horren osagarri, hori ere egunero. Horrela, CULTUR jaialdia hastapenetara itzultzen da, Kultura eta Turismoa are modu estuagoan lotuz bai nafarrek, bai udan gurera etortzen direnek primeran pasa dezaten. Eta kontzertu batera joateko interesa dutenek iradokizun bat aurkituko dute bestelako jardueraren bat egiteko, hala nola upategi edo gaztandegi bat bisitatu, natura-ibilbide bat egin edo zaldiz paseo bat eman, bisita gidatu batean parte hartu edo etxeko jaki eta produktu natural gozoak dastatu. Beste uda batez, musika klasikoa, jazz, koru-musika eta pop edo rock musika entzuten dira historiaz beteriko bazterretan edo paraje natural ederretan. Nafarroako herritarrek, bisitariak, turistak eta bidaiariek abuztuaren bertan eskaintza kultural erakargarri batez gozatzeko aukera izan dezaten sortua da programa, eta abuztuaren 1 eta 31 bitarte garatuko da; gonbidatutako artista eta taldeen artean, besteak beste, Kepa Junkera, Jorge Drexler, Kalakan, Anne Etchegoyen eta Aizkoa korua edo Noa izanen dira.

CULTUR programa, berriz ere, asteko egun guztietan egonen da presente, eta bertan Nafarroako taldeen emanaldiak eskainiko dira, baita nazioko edo nazioarteko beste artista eta talde batzuenak ere.

Iaz lortutako arrakastaren ondoren, inaugurazio-ikuskizuna Iruñeko Baluarte auditorioan egingen da, Nafarroako Ganbera Abesbatzaren Jazzy Leap taldeak eskainiko duen «Duke Ellington» ikuskizunarekin. CULTUR jaialdia bukatzeko ekitaldiak Barañainen eta Tuteran egingen dira berriz ere. Uruguaiako Jorge Drexler kantari eta konpositorea abuztuaren 30ean arituko da Barañain auditorioan, eta biharamunean, abuztuaren 31n, Noa kantari israeldarrak abestuko du Gaztambide antzokian.

Cultur jaialdian arituko diren talde eta artisten artean Betagarri, Serafín Zubiri, Nua Trio, Amaia Azcona eta Maite Ascunce, Smuz quintet, Smokin Stones, Ortzadar Euskal Folklore Taldea, Elkhos ahots taldea eta beste asko izanen dira.

Asteko egun bakoitzean musika mota bat izanen da protagonista.

Astelehenetan: ganbera-musika

Astearteetan: jazz

Asteazkenetan: folka

Ostegunetan: pop-rock musika

Ostiral eta larunbatetan: beste musika batzuk

Igande eta jaiegunetan, abesbatza-musika

Cultur jarraian ageri diren herri eta lekuetan barna ibiliko da abuztuaren 1 eta 31 bitarte: Iruña, Elizondo, Orreaga, Los Arcos, Tafalla, Otsagabia, Viana, Zugarramurdi, Xabier, Irantzuko monasterioa, Bera, Fitero, Izaba, Artaxoa, Leireko monasterioa, Lizaso, La Olivako monasterioa, Erriberri, Martzilla, Lekunberri, Orbaizeta, Zangoza, Agoitz, Uxue, Gares, Lizarra, Altsasu, Mendigorria, Donamaria, Barañain eta Tuter.

INAUGURAZIOA

1 OSTIRALA Baluarteko ganbera-aretoa | 20.30ean | Sarreraren prezioa: 10€

**NAFARROAKO GANBERA ABESBATZAREN JAZZY LEAP
TALDEA: «DUKE ELLINGTON»**

ASTELEHENETAN, GANBERA MUSIKA

4 ASTELEHENA Los Arcos. Andre Maria elizako klaustroa | 20.45ean | Sarrera dohainik.

JOAQUÍN ASIAIN, tenorra - KAMAKO KIMURA, pianoa

11 ASTELEHENA Bera. Eliza | 20.00etan | Sarrera dohainik.

IGOR PERAL, tenorra - GONZALO TREVIJANO, pianoa

18 ASTELEHENA Erriberri. Frantziskotarren eliza | 9.30ean | Sarrera dohainik.

JORGE JUAN MORATA, tenorra - DANIEL GUTIÉRREZ, pianoa

25 ASTELEHENA Gares. San Pedro eliza | 20.30ean | Sarrera dohainik.

AMAIA AZCONA, sopranoa, eta MAITE ASCUNCE, pianoa

ASTEARTEETAN, JAZZA

5 ASTEARTEA Tafalla. Las Pulgas plaza | 22.00etan | Sarrera dohainik.

JEREZ TEXAS

12 ASTEARTEA Fitero. Las Malvas plaza | 21.30ean | Sarrera dohainik.

JAVIER LÓPEZ JASO-MARCELO ESCRICH QUARTET

19 ASTEARTEA Martzilla. Gaztelua | 20.00etan | Sarrera dohainik.

«KIKE ARZA 5ET»

26 ASTEARTEA Lizarra. Kultura Etxea | 20.30ean | Sarrera dohainik.

SMUZquintet

ASTEAZKENETAN, FOLKA

6 ASTEAZKENA Otsagabia. Plaza | 22.00etan | Sarrera dohainik

KALAKAN

13 ASTEAZKENA Izaba. Anfiteatroa | 21.30ean | Sarrera dohainik

KEPA JUNKERA «SORGINAK»

20 ASTEAZKENA Lekunberri. Plaza | 20.00etan | Sarrera dohainik

MIELOTXIN

27 asteazkena Altsasu. Dantzaleku | 21.00etan | Sarrera dohainik

**«EUSKAL AHOTSAK (LES VOIX BASQUES/LAS
VOCES VASCAS)» ANNE ETCHEGOYEN ETA AIZKOA
KORUAREKIN**

OSTEGUNETAN, POP MUSIKA

7 OSTEGUNA	Viana. San Pedroko hondakinak 22.30ean Sarrera dohainik. SERAFÍN ZUBIRI
14 OSTEGUNA	Artaxoa. Quinta parkea 20.30ean Sarrera dohainik. SONIC TOYS
21 OSTEGUNA	Orbaizeta. Pilotalekua 20.30ean Sarrera dohainik. INOCUA

OSTIRAL ETA LARUNBATETAN, BESTE MUSIKA BATZUK

2 LARUNBATA	Elizondo. Foruen plaza 22.00etan Sarrera dohainik BETAGARRI
8 OSTIRALA	Zugarramurdi. Sorginen leizea 18.00etan Leizera sartzeko prezioa: 4 € AKELARRE TIERRA – EUSKAL HERRIKO TXISTULARI ELKARTEA
9 LARUNBATA	Xabier. Auditorioa 12.00etan Sarrera dohainik ORTZADAR EUSKAL FOLKLORE TALDEA «LIBREA NINÇANA»
16 LARUNBATA	Lizaso. Orgiko hariztia 12.30ean Sarrera dohainik TRÍO KRINELA
22 OSTIRALA	Zangoza. Las Arcadas plaza 22.00etan Sarrera dohainik SMOKING STONES
23 LARUNBATA	Agoitz. Kultura Etxea 22.00etan Sarrera dohainik ELFENTHAL OPERA ROCK
29 OSTIRALA	Donamaria. Jauregia dorrea 19.30ean Sarrera dohainik NUA TRÍO

IGANDE ETA JAIEGUNETAN, ABESBATZA MUSIKA

3 IGANDEA	Orreaga Kolegiata 13.00etan Sarrera dohainik. ELKHOS AHOTS-TALDEA
10 IGANDEA	Irantzuko monasterioa. Eliza 12.30ean Sarrera dohainik. OBERENA KORUA
15 OSTEGUNA	Leireko monasterioa. Eliza 19.45ean Sarrera dohainik. LIGUORI KORUA
17 IGANDEA	La Olivako monasterioa. Eliza 19.00etan Sarrera dohainik. SAN JOSÉ KORUA
24 IGANDEA	Uxue. Andre Maria eliza 12.30ean Sarrera dohainik. ARANGUREN IBARREKO KORUA

ITXIERA

30 LARUNBATA	Barañain. Auditorioa 21.00etan Sarreraren prezioa: 17€ palkoa 22€ sala (aurretik), 20€ palkoa 25€ sala egunean berean. JORGE DREXLER
31 igandea	Tutera. Gaztambide antzokia 20.00etan Sarreraren prezioa: prezioa: 17€ anfiteatroa; 22€ platea. NOA

INFORMAZIOA

Emanaldia ikusteko sarrera ordaindu behar da.

BARAÑAIN | ABUZTUAK 30 | JORGE DREXLER

Prezioa: 17 € palkoa, 22 € aretoa (aurretik). 20 € palkoa, 25 € aretoa egunean berean.

Aurretiazko sarreren salmenta: Kontsultatu www.auditoriobaranain.com webgunea.

Sarreren salmenta egunean berean: leihatila 2 ordu lehenago.

PAMPLONA | ABUZTUAK 1 | JAZZY LEAP NAFARROAKO GANBERA ABESBATZA

Prezioa: 10 €

Sarrerak leihatilan eta internet (Ticketmaster) zein telefono bidez salduko dira maiatzaren 9tik uztailaren 14ra. Uztailaren 14tik 30era urruneko salmentaren bidez baino ez dira salduko sarrerak, eta uztailaren 31n eta abuztuaren 1ean zabalik egonen dira Baluarteke leihatilak.

TUDELA | ABUZTUAK 31 | NOA

Prezioa 17 € anfiteatroa, 22 € platea.

Sarreren salmenta: ticketmaster.es /www.castelruiz.es eta antzokian kontzertua hasi baino bi ordu lehenago.

ZUGARRAMURDI

Leizera sartzeko prezioa 4 €.

Informazio gehiago: www.culturanaavarra.es

CULTUR TURISMO JARDUEREN EGUTEGIA

LARUNBATA 2 ELIZONDO Bisita gidatua Elizondora «Zaindari ikusezina» 19.00etan

IGANDEA 3 Bisita gidatua Kolegiatara 12.00etan
ORREAGA/RONCESVALLES

ASTELEHENA 4 Bisita gidatua Andre Maria elizara 17.00etatik
LOS ARCOS 20.00etara

ASTEARTEA 5 TAFALLA Bisita gidatua Mencos jauregira 19.00etan |
Bisita gidatua alde historikora 17.30ean

ASTEAZKENA 6 Bisita gidatua Otsagabian 18.00etan |
OTSAGABIA Bisita gidatua Abodi mendira 10.00etan

OSTEGUNA 7 VIANA Bisita gidatua alde historikora 12.00etan eta
17.00etan | Bisita gidatua «El Bordon» hegazti-
behatokira 10.00etatik 14.00etara eta 16.00etatik
19.00etara

OSTIRALA 8 «Ilargi Betea, Sorginen Larrea» bisita antzeztua
ZUGARRAMURDI Zugarramurdin 19.30ean

LARUNBATA 9 JAVIER Bisita gidatua Xabierko gazteluko museora 11.30ean
eta 16.30ean | Jaitsiera baltsaz Irati ibaitik eta
Ilunberrin, 10.00etan eta 15.30 ean

IGANDEA 10 Bisita gidatua Irantzuko monasteriora 12.00etan
IRANTZUKO MTRIOA eta 17.00etan | Abartzuzako batailaren antzezlan
18.00etan | Bisita gidatua Pacharán Azanza
upategietara 11.00etan eta 17.00etan

ASTELEHENA 11 BERA Bisita gidatua Lesakara 12.00etan eta 16.00etan

ASTEARTEA 12 FITERO Fiteroko bainuetxean sauna naturala 7.00etatik
13.00etara eta 16.30tik 19.00etara | Eko
elkarretaratzea: bisita baratzera + bazkaria La
Fiterana jatetxean 12:30ean | Ibilbide zirkularra
09:00etan, 11 km

ASTEAZKENA 13 IZABA Bisita gidatua Julian Gayarrerren mausoleora eta
museo-etxera 18.00etan | Mendi- ibilaldiak
Belaguan. 10.00etatik 17.00etara, 11 km, maila
erraz-ertaina

OSTEGUNA 14 ARTAJONA Bisita gidatua Artaxoako zerkora 19.30ean

OSTIRALA 15 Bisita gidatua monasteriora 17.30ean Bezperak
LEIREKO MTRIOA 19.00etan | Bisita gaizkata eta kabiarraren arrain-
haztegira Esan, 12.30ean | Lunch aperitiboa, Virilan
14.00etan

LARUNBATA 16 LIZASO Bisita gidatua Orgiko hariztira 10.00etan

IGANDEA 17 LA OLIVAKO MTRIOA	Bisita gidatua monasteriora 17.00etan
ASTELEHENA 18 ERRIBERRI	Kata lasterra 13.00etan + pintxoak Ardoaren Museon
ASTEARTEA 19 MARCILLA	Bisita gidatua Marcilla gaztelura 19.00etan Nekazaritzako lanabes zaharren erakusketa gazteluan 19.00etatik 20.30era Bertako margolanen erakusketa gazteluan 19.00etatik 20.30era
ASTEAZKENA 20 LEKUNBERRI	Plazaolako Bide Berdea, oinez edo bizikletaz Bisita gidatua Etxarri-Larraungo Bikain gaztandegira 17.30ean + Bisita gidatua Lekunberrira 19.00etan Aralarko trikuharrien bidea 15.30ean Beigorri abentura parkeko zuhaitzen arteko bidea
ASTEARTEA 21 ORBAIZETA	Bisita gidatua arma-olara eta ingurunea 18.00etan Irati Oihanaren Historia Irati ibaiak kontatua 17.30ean
OSTEGUNA 22 ZANGOZA	Bisita monumental gidatua Zangozara eta Andre Maria elizara argi eta soinuarekin 18.30ean Bisita argi eta soinuarekin Andre Maria elizara 10.00etatik 13.30era eta 16.00etatik 18.30era
OSTIRALA 23 AGOITZ	Bisita gidatua San Migel elizara 17.30etik 19.30era Jaitsiera baltsaz Irati ibaitik eta Ilunberrin, 10.00etan eta 15.30ean
LARUNBATA 24 UJUE	Bisita gidatua gotorleku-elizara + bisita nekazaritzako dendara 10.30ean
IGANDEA 25 GARES	Bisita gidatua alde historikora, urratsez urrats 18.30ean
ASTELEHENA 26 ESTELLA-LIZARRA	Bisita gidatua hirira + boilur-pintxoak eta ardoa 18.00etan Bisita gidatua San Pedro Rua elizara 17.00etan Bisita Metautengo boilurraren museora + dastatzea 11.30ean
ASTEARTEA 27 ALTSASU/ALSASUA	Paseoa zaldiz Urdiaingo eta Altsasuko hariztian barna 10.00etatik 17.30era Mendi-ibilaldia: Urbasa «Pagadi sorgindua» 10.30ean
ASTEAZKENA 28 MENDIGORRIA	Bisita gidatua Andelosko indusketa-lanetara eta museora 18.00etan
OSTEGUNA 29 DONAMARIA	Bisita gidatua Jauregia dorrera 18.00etan
LARUNBATA 31 TUDELA	Tuteran barrena 11.00etan Bisita Muñoz Sola museora 10.00etatik 13.00etara Bisita gidatua Corteseko gaztelura 12.00etan eta 12.30ean

Informazio gehiago: www.turismonavarra.es

T +34 848 42 04 20

**IKUSKIZUNAK
ETA JARDUERAK**

ABUZTUAREN 1A, OSTIRALA | **IRUÑA**

Baluarteko Ganbarte Aretoa | 20.30 etan | Sarrera 10 €



JAZZY LEAP – Nafarroako Ganbera Abesbatza «Duke Ellington»

Andoni Arcilla kantari, piano-jotzaile eta jazz-espezialistak, Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP) «Ensemble Moderno» taldeko zuzendaritzan izandako bost urteko esperientziaren ondoren, eta inprobisazio eta kantu modernoari buruz zenbait ikastarotan eta aho-jazza egiten zuten talde batzuetan aritu eta gero, Jazzy Leap taldea sortu zuen Nafarroako Ganbera Abesbatzaren egitura eta laguntzarekin; talde egonkorra da, eta bere helburu nagusia jazz musikaren etapa eta estilo guztiak biltzen zituen erreperitorio bat lantzea zen, hau da, jazzaren jatorritik hasi (espirituala, bluesa eta ragtimea) eta swing, be-bop, cool, modal jazz, bossa-nova, fusion, latin jazz eta gainerako estiloetaraino, baita beste estilo batzuekin izandako nahaste edo harremanak ere, hala nola pop, rock edo rhythm&blues estiloekin izandakoak.

Bi urte eskas igaro dira taldea ibiltzen hasi zenetik, baina dagoeneko Jazzy Leap taldea sendotu egin da gure herrialdeko talde

interesgarrienen artean aho-jazzaren arloan; gospel edo swing generoei eskainitako monografikoak egin dituzte, baita besteak beste Duke Ellington edo The Beatles taldeei eskainitako programak ere, alde batera utzi gabe Broadway eta Hollywoodeko musikaren historiako bikote ospetsuenak ardatz dituen ikuskizun arrakastatsua. Taldea bikain moldatzen da agertokian, hainbat talde eratzen baititu emanaldian zehar: a capella, bakarlariekin eta/edo akonpainamendu instrumentalarekin edo piano-hirukote (kontrabaxua/baxua eta bateria) edo laukote gisa. Besteak beste, Baluarte Auditorioan, Barañain Auditorioan eta Gaztambide Antzokian aritu dira.

Cultur jaialdian ospe handiko Duke Ellington konpositore eta zuzendariari eskainitako programa aurkeztuko dute, eta ondoan Jazzy Leap quintet taldea –saxoa, gitarra, kontrabaxua, bateria– izanen dute, baita Andoni Arcilla bera –pianoa jotzen– ere.

ABUZTUAREN 2A, LARUNBATA | **ELIZONDO**

Foruen plaza | 22.00etan | Sarrera dohainik



20 URTE DIRAUCEN BIDAIA BATEZ GOZATZEN

Betagarri

Ska-rock jotzen duen Arabako taldeak bere 20. urtemuga ospatzen du lan berri bat plazaratuz, «XXL» izenekoa; lan horretan bi hamarkadan egindako bidea laburbiltzen da, hain zuzen ere, Betagarri taldea euskal musikaren eszenako erreferente bilakatu duen musika bilduta.

Taldearen historia 1994ko maiatzean hasi zen, lagun-talde batek bere lehen maketa editatzea lortu zuenean; garai bateko kasete haietakoa zen, azalean autoeskola bateko L bat agertzen zuena, eta hura tabernaz taberna saltzen hasi ziren 500 pezetaren truke. 1999an inflexio-puntu garrantzitsu bat izan zuen bide luze baten hasiera zen, arabarrek orduan 80/00 diskoa plazaratu baitzuten, beste talde batzuen temen bertsio propioa eginez: Doctor Deseo, Hertzainak, Kortatu, Itoiz...

2002an egin zuten lehen bira Europan zehar, eta urtebete geroago jauzi handi bat egin zuten Japonia aldera, baita Ameriketako Estatu Batuetara edo Argentinara ere. Esaten dutenez, «gehienbat bidaiak lasaia eta zuzena izan da, bigarren mailako errepidetan zehar beharbada, baina helburu garbi batekin: bideaz gozatzea». Jarraituko al dute beste 20 urtez sua bizirik mantentzen?

TALDEKIDEAK

Iñaki Ortiz de Villalba: ahotza | Iosu Izagirre: baxua | Aitor Agirre: gitarra | Iker Uriarte: bateria | Unai Lobo: tronpeta | Mikel Sanz: tronboia | David Gaviá: saxoa

JARDUERA TURISTIKOAK

Bisita gidatua Elizondora «Zaindari ikusezina» 19.00etan Beatriz eta Juan Mari • T 670 336 232 • visita-elguardianinvisible@hotmail.com



ABUZTUAREN 3A, LARUNBATA | **ORREAGA**

Kolegiata | 13.00etan | Sarrera dohainik



ABESBATZA

MUSIKA ZENTZUMENENTZAT

Elkhos ahots-taldea

Elkhos ahots-taldea bere fundatzaile eta zuzendari Carlos Gorrichoren eta musikari lotutako beste pertsona batzuen ekimenez sortu zen, koru-musika egiteko xedearekin. Gaur egun 15 pertsona aritzen dira koruan.

Bere errepertorioa bariatua da, eta zenbait garai eta estilotako obrak biltzen ditu, bai profanoak, bai sakratuak. Taldeak euskal folkloreko obrak sortzen eta harmonizatzen ditu, eta horrek ekarpen zuzena ematen dio koruari eta, oro har, panorama musikalari.

Elkhos ahots-taldeak zenbait ziklo eta kontzertutan parte hartu du Espainia guztiko hainbat probintzia eta erkidegotan, eta 2011n bira bat egin zuen Belgika eta Herbehereetan, besteak beste, Rheinberger, Alcaraz eta Biebl egileen temak interpretatuta.

Fundatu zenetik Nafarroako Abesbatzen Elkarteko kidea da. Bere zuzendariak, Carlos Gorrichok, solfeo, harmonia eta kantuko ikasketak egin ditu Iruñeko Pablo Sarasate kontserbatorioan. Aizaga ganbera-koruko fundatzailea izan zen –korua nazioko zein nazioarteko sariak jasotakoa da–, eta Nafarroako Abesbatzen Elkarteko kidea da.

TALDEKIDEAK

Sopranoak: Anabel Ariño, Silvia Ongay, Osane Leiza, Iraida Galvan | Altuak: Itziar Bueno, Eva Orbara, Begoña Goikoa; Miriam Mendive | Tenorrak: Imanol Erkizia, Jesús Arrastia, Pedro Echeverria | Baxuak: Pedro de la Pisa, Martín Sorozábal, Ramón Ayerra, Javier Oses, Javier Beltran | Maisu zuzendaria: Carlos Gorricho Otermin


JARDUERA TURISTIKOAK

Bisita Kolegiataren multzora 12.00etan • Auriaorreaga. T 948 79 04 80 • auriaorreaga@gmail.com



ABUZTUAREN 4A, IGANDEA | **LOS ARCOS**

Andre Maria elizako klaustroa | 20.45ean | Sarrera dohainik



GANBARA

Joaquín Asiáin, tenorra, eta Kamako Kimura, pianoa

Joaquín Asiáin tenor nafarrak eta Kamako Kimura piano-jotzaile japoniarrak kontzertu bat eskainiko dute Los Arcosen Rossini, Donizetti, Serrano, Sorozábal, Usandizaga eta beste egile batzuen obrak joaz.

Joaquín Asiáinek Goi Mailako Kantu Eskolan ikasi zuen, Madrilen, eta prestakuntza Stuttgart hiriko Musikhochschule eskolan bukatu zuen. Halaber, lirikako egile ospetsu batzuk ere izan ditu maisu, hala nola Alfredo Kraus, Aldo Baldin, Willian Mateuzzi edo Marimí del Pozo.

Segurtasun apartako tenor arina da goi eta gorenengo erregistroan, «tenore di grazia», eta hirugarren saria lortu zuen A. Catalani nazioarteko lirikaren VIII. lehiaketan. Mundu osoko agertokietan kantatu du honako orkestra hauekin guztiekin: Stuttgarterteko Orkestra Sinfonikoa, Leipziger Irrati Orkestra, Berliner Philharmonie, Koloniako Orkestra Filarmonikoa, Bregenzko Kamerata, Baden Württembergische Philharmonie, Bamberger Symphoniker, San Petesburgoko Orkestra Sinfonikoa eta Ganbera Orkestra, RTVEko Orkestra, Madrilgo Orkestra Sinfonikoa, Borusan Istanbul Filarmonie, eta abar. Horieta, besteak beste, honako paper hauek izan zituen: Ernesto («D. Pasquale»), Ferrando («Cosí fan tutte»), Zisnea («Carmina Burana»), Basilio («Bodas de Figaro»), Eduardo («La Cambiale di Matrimonio»), Almagu («El Barbero de Sevilla»). Eta honako disko-etxe guztiontzat grabatu izan ditu diskoak: Kreuz-Plus, RTVE, Eivissako TV, Alemaniako telebista (B.Tv.), Austriako irratia (ÖRF), Chileko Canal 4 eta Turkiako irratia-telebista (TRT).

Kamako Kimurak –Hokkaidon sortua– 4 urte zituela jaso zituen lehenbiziko piano-ikasketak. Tokioko Goi Mailako Musika Eskolan lizentziatu zen, eta gero goi mailako ikasketak osatu zituen Wolfgang

Bloser irakaslearekin batera egindako master batekin, eta lied espezialitatean Cornelis Witthoefft irakaslearekin Stuttgarter Musikhochschule eskolan. Hainbat jaialdi eta programaziotan bakarlari gisa aritu da Japonian eta Alemanian. Kamako Kimura, nacida en Hokkaido, recibió sus primeras lecciones de piano a la edad de 4 años. Se licenció en la Escuela Superior de Música de Tokio y posteriormente completó su estudios superiores con un Máster con el profesor Wolfgang Bloser y en la especialidad de lied con el profesor Cornelis Witthoefft en la Musikhochschule de Stuttgart. Ha actuado como solista en diferentes festivales y programaciones de Japón y Alemania.

PROGRAMA

1. ZATIA

G. Rossini

Ecco ridente in cielo...
El Barbero de Sevilla

V. Bellini

Ma rendi pur contento
Malinconia

G. Donizetti

Quanto è bella
L'elisir d'amore
Me voglio fa' na casa

G. Rossini

Una carezze à ma femme (piano solo)

L. Denza

Occhi di fata

P. Tosti

Aprile

C. Bixio

Parlami d'amore Mariù

2. ZATIA

J. Quintero

Morucha

A. Ginastera

Canción del árbol del olvido

O. Pérez Freire

Ay, ay, ay
Serenata criolla

Soutullo i Vert

Bella enamorada ..
El último romántico

J.M. Usandizaga

Scherzo (piano solo)

F. Obradors

Del cabello más sutil

P. Sorozábal

No puede ser...
La tabernera del puerto

N. Otaño

Ya no va la niña

J. Serrano

El trust de los tenorios

JARDUERA TURISTIKOAK

Bisita gidatua Andre Maria elizara 17.00etatik 20.00etara • Los Arcosko Udaleko Kultura. T 948 64 00 21 • cultura@losarcos.es



ABUZTUAREN 5A, ASTEARTEA | **TAFALLA**

Las Pulgas plazatxoa | 22.00etan 1 Sarrera dohainik



JAZZA

FLAMENKOAREN INDARRA, JAZZAREN ASKATASUNA
ETA KLASIKOAREN DOTOREZIA BAT EGINDA

Jerez-Texas

Hamar urtetik gora dira Ricardo Esteve (gitarra flamenkoa), Matthieu Soglio (biolontxelo) eta Jesús Gimeno (kaxoi-bateria) unibertso musikal bat sortzen ari direla, flamenkoan, jazzean eta musika klasikoan sustraitutakoa. Hirukoteak Valentzian du oinarria, eta denbora horretan zehar 500 kontzertu baino gehiago eskaini dituzte 25 herrialdetan; izan ere, taldea erreferente gisa sendotu da fusio-musikaren arloan.

Lau diskok osatzen dute taldearen diskografia: «Saó» (2005), «Patchwork» (2007), «Sun» (2010) eta «Viento y Marea» (2013). Azken disko horretan –horixe aurkeztuko dute Tafallan– taldeak oinak Mediterraneoan eta burua lau haizetara izaten jarraitzen du. Freskura, sormen eta alaitasunez beteriko disko horretan, besteak beste, Burguitos kantaria eta Denis Colin frantziarra –klarinete baxua– aritu dira laguntzaile.

TALDEKIDEAK

Ricardo Esteve: gitarra flamenkoa | Matthieu Soglio: biolontxelo | Jesús Gimeno: bateria, kaxoia

JARDUERA TURISTIKOAK

Bisita gidatua Mencos jauregira 19.00etan • Mencos jauregia. T 630 068 112 • info@palaciodelosmencos.es

Bisita gidatua alde historikora 17.30ean • Guiarte turismo zerbitzuak. T 948 74 12 73 • info@guiartenavarra.com



ABUZTUAREN 6A, ASTEAZKENA **OTSAGABIA**

Plaza | 22.00etan | Sarrera dohainik



FOLKA

MADONNAREN MUNDUKO BIRAN ARITU ZIREN
TXALAPARTARIAK

Kalakan

Kalakan taldea 2009an sortu zen Katia eta Marielle Labèque piano-jotzaileekin batera egindako kolaborazio batetik. Thierry Biscary, Xan Errotabehere eta Jamixel Bereau musikariek osatzen dute taldea. Iparraldeko hiru kantari eta txalapartari dira, eta soinu tradizionalen oinarritutako musika interpretatzen dute, euskaraz, baina XXI. mendera hurbilduta. Sinpletasuna, dotorezia eta ahotsen indarra dira taldearen musikaren ezaugarriak.

2011ko udan Madonnaren urtebetetzean jo zuten, Iparraldeko kostaldean baitzegoen oporraldian; Labèque ahizpei esker elkar ezagutu zuten taldeak eta Madonnak. Ospe handiko kantariak MDNA Tour 2012 munduko biran parte hartzera gonbidatu zuen Kalakan, eta azkenean 80 kontzertutan baino gehiagotan aritu ziren, beren fama sorterritik kanpora ere zabalduz.

Pop musikaren erreginarekin izandako esperientziaren ondoren, Kalaka taldea bere aire minimalistara itzuli zen, ahots eta perkusioaren bidez entzuleriarekiko harreman zuzena bilatuta. 2013ko bukaeran, taldeak «Herritmo» ikuskizuna estreinatu zuen Oreka TX (txalaparta) eta Kukai (dantza) taldeekin batera; ikuskizunean zenbait arte-diziplina nahasten dira, eta tradizioa eta garaikidetasuna elkartzen dira herri kirola ardatz gisa erabiliz.

TALDEKIDEAK

Thierry Biscary: ahotsa, perkusioa eta txirulak | Xan Errotabehere: ahotsa, airea (txirula, alboka, gaita...), perkusioa eta gitarra | Jamixel Bereau: ahotsa, perkusioa eta gitarra

JARDUERA TURISTIKOAK

Bisita gidatua Otsagabian 18.00etan • Otsagabiko turismo bulegoa. T 948 89 06 41 • oit.ochagavia@navarra.es

Bisita gidatua Abodi mendira 10.00etan • Otsagabiko turismo bulegoa. T 948 89 06 41 • oit.ochagavia@navarra.es



ABUZTUAREN 7A, OSTEGUNA | **VIANA**

San Pedro elizaren hondakinak | 21.00etan | Sarrera dohainik



POPA

NAFARROAKO MUSIKARIA SORTERRIRA ITZULTZEN
DA AZKEN DISKOKO TEMAK INTERPRETATZEKO

Serafín Zubiri

Serafín Zubiri kantari eta piano-jotzaile nafarrak Equus taldean hasi zuen bere ibilbide profesionala bakar-bakarrik 17 urte zituela, eta bost urte geroago, bakarlari hasi zen.

1987an lehen diskoa grabatu zuen «Inténtalo»- eta hurrengo urtean «Pedaleando» diskoa plazaratu zuen; horren tema nagusia Espainiako itzuli ziklistaren sintonia izan zen. 1991. urtean bere arrakasta handienetako bat lortu zuen merkatuan «Polvo de estrellas» kantarekin, eta hurrengo urtean berriz ere ospe handia erdietsi zuen «Ederra eta piztia» filmaren soinu-bandaren tema nagusia interpretatuz.

Espainiaren ordezkaria izan da, bi aldiz, Eurovisión jaialdian: lehenbizikoa 1992an «Todo esto es la música» kantarekin, eta bigarrena 2000. urtean «Colgado de un sueño» temarekin.

1995ean «Un hombre nuevo» diskoa plazaratu zuen, eta bertan Aconcagua mendia eskalatzean izandako esperientziaren berri ematen du. Izan ere, ibilbide musikala jorratzeaz gainera, Serafín Zubirik zenbait kirol-erronka ere gauzatu ditu, eta antzezlan batzuetan ere aritu da, baita telebistako zenbait saiotan ere, aurkezle eta lehiakide gisa.

2010ean itzuli eta «Sigo aquí» diskoa plazaratu zuen, eta bi urte geroago «X una causa justa» diskoa eman zuen argitara, horren kantak zenbait arazo soziali eskainita.

JARDUERA TURISTIKOAK

Bisita gidatua alde historikora 12.00etan eta 17.00etan • Vianako turismo bulegoa. T 948 44 63 02 • turismoycultura@viana.es

Bisita gidatua «El Bordón» hegazti-behatokira 10etatik 14etara eta 16etatik 19etara • Behatokia: 696 830 989 • turismoycultura@viana.es



ABUZTUAREN 8A, OSTIRALA

ZUGARRAMURDI

Sorginen leizea | 18.00etan | Leizerako sarrera: 4 €



KONTZERTU DESBERDINA, BERRITZAILEA
ETA SORPRESA ESZENIKOAK ESKAINITA

Akelarre tierra

«Akelarre tierra» ikuskizunak lamia, sorgin eta beste pertsonaia batzuen mito eta kondairetara hurbilduko gaitu Zugarramurdiko leizean bertan. Txistuak, biolontxeloak, fagota, perkusioa eta organoa bilduko dira ikuskizun eszenifikatu batean, Álex Ruiz eta Leire Ruiz aktoreekin, eta beste dantzari eta aktore boluntario batzuekin.

Kontzertua «Amaia» (Guridi) operaren ezpata dantzarekin abiatuko da, Navarro Villosladaren «Amaia eta euskaldunak VIII. mendean» legendan oinarrituta. Jarraian «Maddi Amalurra» etorriko da, Jokin Lekunberriren lan bat, hasierara, lurra emankor bilakatzen duen jainkosarengana eramanen gaituena. Iñigo Casalíren «Zugarramurdi 1610» ikuskizunean leizeaz, gauaren iluntasunaz eta kilkerren kantuz hitz egiten da; izan ere, horiek ditugu suaren inguruan egitekoa den errito zorionsuaren iragarleak. «Scape Symphony», David Johnstone eskoziarrarena, denboran dirauen euskal espirituaz mintzo zaigu. Eta kontzertuari akabera emateko, «Gernikako hileta-martxa», Pablo Sorozabalena.

Álex Ruiz da eszena-zuzendaria, eta Raúl Madinabeitia musikaren arduraduna.

MUSIKA

Euskal Herriko Txistulari Elkartea | José Antonio Pascual (órgano) | David Johnstone, Iván Carmona e Igor Sáenz (violonchelo) | Salvador Tarazona e Iñaki Cuenca (percusión) | Peio Berasategi (fagot)

AKTOREAK

Álex Ruiz eta Leire Ruiz

PROGRAMA

Amaia **Guridiren** operako ezpata dantza.

Iñigo Casali
Zugarramurdi 1610.

Pablo Soroazabal
Gernikako hileta-martxa.

Joaquín Lecumberri
Maddi Amalurra.

David Johnston
Scape Synphony.

JARDUERA TURISTIKOAK

«Ilargi Betea, Sorginen Larrea» bisita antzetzua Zugarramurdin
19.30ean • Sorginen museoa. T 948 59 90 04 • info@zugarramurdi.es



ABUZTUAREN 9A, LARUNBATA | **XABIER**

Auditorioa | 12.00etan | Sarrera dohainik



ORTZADAR EUSKAL FOLKLORE TALDEAK
ABSENTZIAK MARRAZTU ETA ISTORIO TTUPI-TTUPIAK
KONTATZEN DITU HISTORIAREN BARRENEAN

...librea ninçana

Ortzadar Euskal Folklore Taldearen musika- eta dantza-proposamen honek XVI. mendeko Nafarroara eramaten du ikuslea. Ezinezkoa da hemeretzi urtean izandako batailak, erasoak eta kontraerasoak ordubetean kontatzea. Horregatik, «...librea ninçana» ikuskizun poetikoagoa eta sinbolikoagoa da errealista edo kostunbrista baino gehiago. Muntaketak estilo hanpatutik egiten du ihes, ezpaten eta lauhazken asotsetatik edo bataila jendetsuetatik, eta txikiaren eraginkortasunaz baliatzen da; izan ere, babesa bilatzen du etxe xume batean, Historiaren protagonista handia izan gabe, lurraldea defendatzera gerrara abiatu eta itzultzen ez denaren absentzia sentitzen duen horretan.

Folkloreko musika tradizionalen oinarritzen da «...librea ninçana» lanaren musika, zenbaitetan garapen harmonikoak soinu eguneratzen badu ere. «Mille Regretz», Josquin Desprez egilearen lan bat, garai hartan eragin handia izan zuena, leitmotiv gisa erabiltzen da ekitaldi bakoitzean errepikatuta. Herri kantuek ere berebiziko lekua hartzen dute.

Herriaren dantzatik edaten du «...librea ninçana» ikuskizunaren mugimenduak, Errenazimenduan sortutako arte noble gisa ulertuta. XV. eta XVI. mendeetan, baxua eta altua, antzinako garaietatik

zetozenak, eta pabana eta gaillarda izan ziren Europako gorteetan boladan zeuden dantzak. Herri dantzak, bestalde, branle familiarenak ziren gehienbat, eta «jauzi» dantzaren antzeko egitura bat zuten.

TALDEKIDEAK

Zuzendaria: Aitor Subiza | Eszenografia: Iruña Iriarte | Musika zuzendaria: Mikel Pertirena | Dokumentazioa: Ana Telletxea | Ekoizpen exekutiboa: Mikel Lasarte

JARDUERA TURISTIKOAK

Bisita gidatua Xabierko gazteluko museora 11.30ean eta 16.30ean • Xabierko gaztelua. T 948 88 40 24 • castillodejavier@jesuitas.es

Jaitsiera baltsaz Irati ibaitik eta Ilunberri aldean, 10.00etan eta 15.30ean • Nattura: 948 13 10 44 / 671 247 596 • info@nattura.com



ABUZTUAREN 10A, IGANDEA | **IRANTZUKO MONASTERIOA**

Eliza | 12.30ean | Sarrera dohainik



ABESBATZA

Oberena korua

Oberena korua 1990ean sortu zen, eta hogeita hamar ahotsek osatuta dago, Alfonso Ortiz zuzendari dela fundatu zenez geroztik. Bere errepertorioak Errenazimenduko lanak, polifonia erlijiosoa eta profanoa biltzen ditu, bai eta herri-sustrai unibertsaleetatik sortutako lanak ere, gaur egungo joera estetikoaren arabera moldatuta.

Korua Nafarroako Abesbatzen Federazioko kidea da, eta hainbat kontzertu eskaini ditu azken urteotan. Nafarroako Gobernuak zenbait programa kulturaletan aritu da, eta udal eta kultura-erakunde batzuek gonbidatuta ere bai, unean uneko kontzertuetan eta koru-musikaren zikloetan parte hartzeko. Besteak beste, Paris, Sevilla, Cádiz, Zaragoza, Asturias edo Gaztela eta Leonen eskaini dituzte emanaldiak. Koruen arteko lehiaketa eta sariketetan ere parte hartu dute, sari batzuk lortuta.

2004. eta 2005. urteetan Donejakue bidea egin zuten, kantu-kantari. Orreagatik abiatuta, honako leku hauetan egon eta kantatu zuten: Iruña, Gares, Logroño, Santo Domingo de la Calzada, Burgos, Frómista, Carrión de los Condes, León, Astorga, Villafranca del Bierzo eta Sarria. Azkenik, Santiago Compostelakora iritsita, bideko azken kontzertua eskaini zuten katedralean bertan. 2006an «Javier, vida de un hombre santo» melodrama estreinatu zuten Iruñean, J.A. Jiménez Train musikari nafarrak zuzenduta eta Nafarroako Abesbatzen Federazioarekin elkarlanean.

JARDUERA TURISTIKOAK

Bisita gidatua Irantzuko monasteriora 12.00etan eta 17.00etan

• Irantzuko turismo bulegoa 646 185 264 / 948 53 63 18 • info@tierrasdeiranzu.com

Abartzuko batailaren antzezlan 18.00etan. • Irantzuko turismo

bulegoa 646 185 264 / 948 53 63 18 • info@tierrasdeiranzu.com

Bisita gidatua Pacharán Azanza upategietara 11.00etan eta 17.00etan

• Irantzuko turismo bulegoa: 646 185 264 / 948 53 63 18 • info@tierrasdeiranzu.com



ABUZTUAREN 11, ASTELEHENA | **BERA**

Eliza | 20.00etan | Sarrera dohainik



IGOR PERAL TENORRAREN ETA GONZALO
TREVIJANO PIANO-JOTZAILEAREN ERREZITALDIA

Bidaia bat Pirinioetan barrena

Igor Peral tenor nafarrak eta Gonzalo Trevijano piano-jotzaileak osatutako bikoteak Pirinioen bestaldera joateko gonbita egiten digu Espainiaren eta Frantziaren arteko ideia komunaren korronteen eta inspirazio-iturrien bila. XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran Paris erdigune kultural oso garrantzitsua bilakatu zen, musikaren eta pinturaren arloko abangoardien sorlekua. Parisko kontserbatorioa eta Schola Cantorum eskola –Isaac Albéniz irakasle aritu zen horretan– leku mitikoak izan ziren, baita konpositore espainiarren pelegrinazio-lekuak ere. Aldi berean, garai hartako konpositore espainiarrek bildutako folklorak bere eragina izan zuen konpositore frantziarren obretan. Eraginak, beraz, elkarrekikoak izan ziren errezitaldi honetan dagoen konpositore-taldean.

Igor Peral eta Gonzalo Trevijano elkarrekin ari dira lanean 2011tik. Peralek musika-ikasketak egin zituen Julián Romano kontserbatorioan eta Masako Ishii, Almudena Ortega eta Juan Lomba maisuekin aritu da ahots-prestakuntzan, besteak beste. «El Caserío» eta «La tabernera del puerto» zartzuelak interpretatu ditu, eta «La Traviata», «La Bohème» eta beste opera batzuetan ere parte hartu du, errezitaldiak eta gala lirikoak eskaintzeaz gainera. Gainera, beste talde batzuen artean, Donostiako Orfeo, Nova Lux Ensemble eta Errege Antzokiko Koru Titularreko kidea izan da.

Gonzalo Trevijano donostiarrak bere hiriko kontserbatorioan eta Goi Mailako Musika Kontserbatorioan –Madrilen– egin zituen ikasketak.

Donostiako Francisco Escudero kontserbatorioan egiten duen irakasle-lana bere kontzertu-ibilbidearekin bateratzen du; horretan bakarlari eta piano-duo gisa eta beste kantari batzuekin ganbera moduan aritzen da. Kontzertuak eskaini ditu nazioarteko jaialdietan eta beste leku askotan, adibidez, Moskuko Pushkin museoan, New Yorkeko Steinway aretoan eta Madrilgo Auditorio Nazionalean. Halaber, Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin eta Euskadiko Sinfonikoarekin aritu da elkarlanean, eta grabazioak egin ditu RTVerentzat.

PROGRAMA

Henri Duparc (1848-1933)

L'invitation au voyage
Chanson triste
Soupir

Maurice Ravel (1875-1937)

Mouvement de Menuet (Sonatina)
Trois beaux oiseaux du Paradis
Quel galant m'est comparable

Reynaldo Hahn (1874-1947)

Si mes vers avaient des ailes!
L'heure exquise

Gabriel Fauré (1845-1924)

Romance sans paroles, opus 17
Clair de lune
Chanson d'amour

Isaac Albéniz (1860-1909)

Navarra

Fernando Obradors (1897-1945)

Del cabello más sutil
El vito

Federico Mompou (1893-1987)

Canción y danza nº 6

Jesús Guridi (1886-1961)

Mañanita de San Juan (seis
canciones castellanas)

Manuel de Falla (1876-1946)

Siete canciones populares
españolas

JARDUERA TURISTIKOAK

Bisita gidatua Lesakara 12.00etan eta 16.00etan • Lesakako Udaleko Kultura eta Turismoa: 948 63 80 07 • kultura@lesaka.net



ABUZTUAREN 12A, ASTEARTEA | **FITERO**

Plaza de las Malvas | 21.30ean | Sarrera dohainik



JAZZA

INDAR SORTZAILEA ETA JAZZAREN
ESPONTANEOTASUNA BAT EGINDA LAUKOTE HONEN
ESTILO ORIGINALEAN

Javier López Jaso & Marcelo Escrich Quartet

Javier López Jaso & Marcelo Escrich Quartet taldeak jazzaren tradizioa inprobisatutako musikaren kontzepzio berrieekin batzen du, hori dena bere estilo partikular, berritzaile eta paregabeaz apainduta. Akordeoiaren eta kontrabaxuaren arteko konbinazio instrumental berezi-bereziak –oso bestelako soinuak elkartuz–, ate bat zabaltzen die ibilbide musikal berriei. Oso melodia eta erritmo desberdinak elkartzen dira –tangoa, musette frantziarra eta musika klasikoa– ikuspuntu berritzaile eta original batetik, ardatz gisa inprobisazio eta jazzera bideratutako soinu-espazioa dutela.

Marcelo Escrich kontrabaxu-jotzaile argentinarra eta Javier López Jaso soinu-jotzaile iruindarrak urteak daramatzate elkarrekin jotzen. Zerbait estilo probatu eta gero, bere musika jazz eta inprobisazioaren aldera biratu zen, eta taldea laukote bihurtu zuten, Juanma Urriza (bateria) eta Luis Giménez (gitarra) sartuta.

Laukotea Donostiako Jazzaldian hasi zen bidean 2012an, eta Iruñeko Ciudadelarte jazz-zikloan ere, kritika eta entzuleriaren oso harrera ona izanda. Orain bere lehen diskoa aurkeztu du, «Pagoda», jatorrizko piezek erabat osatuta. Diskoaren temek hainbat ezaugarri uzten dituzte agerian, hala nola soinuaren arteko elkarriketa, kontrapuntua eta harremanak, muturreko dinamikak, eta jolas eta soinu berriak.

TALDEKIDEAK

Javier López Jaso (akordeoia) | Marcelo Escrich (kontrabaxua) | Juanma Urriza (bateria) | Luis Giménez (gitarra)

JARDUERA TURISTIKOAK

Fiteroko bainnetxean sauna naturala 7.00etatik 13.00etara eta 16.30etik 19.00etara • Fiteroko Udaleko turismo bulegoa, de A-L T 948 77 66 00 • turismo@fitero.org

Eko elkarretaratzea: bisita baratzera + bazkaria La Fiterana jatetxean 12.30ean • Fiteroko Udaleko turismo bulegoa, de A-L T 948 77 66 00 • turismo@fitero.org

Ibilbide zirkularra 09.00etan, 11 km • Fiteroko Udaleko turismo bulegoa, de A-L T 948 77 66 00 • turismo@fitero.org





FOLKA

TRIKITIAREN HISTORIA TXIKI BAT

Kepa Junkera & Sorginak

Kepa Junkerak trikitiaren eta musika tradizionalaren mundua irauli du, eta euskal musikaren panorama aberastu du bere inprobisazioen tratamenduaren eta estiloen fusioaren bidez.

Bere diskografia zabalean honako album hauek aurkitzen ditugu, besteak beste: «Kepa, Zabaleta eta Motriku» (1987), «Triki up» (1990), «Trans Europe Diatonique» (1993), «Lau Eskutara» (1995), «Leonen Orroak» (1996), «Bilbao hora 00:00h» (1998), «Maren» (2001), «Hiri» (2006), «Etxea», «Kalea» eta «Herria» lanek osatutako trilogia (2008-2010) eta «Galiza» (2013).

Bere ibilbidean zehar, Junkera makina bat musikari eta kantarirekin aritu da elkarlanean, besteak beste Dulce Pontes, María del Marte Bonet, Carlos Núñez, The Chieftains, Caetano Beloso eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin. Bere disko bikoitza –«K» (2003)– Arriaga antzokian grabatu zen zuzenean, eta Folk musikako album onenari emandako Grammy saria lortu zuen. 2013an «Martínez Torner» folkloreko sari nazionala jaso zuen bere musikagatik; hori, tradizioan errotuta badago ere, aldi berean mugarik gabea da, eta mundura, beste usain, erritmo eta kultura batzuetara zabalik dago.

Kepa Junkera (trikitia-perkusioak)

Sorginak:

Ametz Ormaetxea (pandereta, ahotsa, dantza, perkusioak) | Alaitz Escudero (pandereta, ahotsa, dantza, perkusioak) | Leire Etxezarreta (pandereta, ahotsa, dantza, perkusioak) | Irati Gutiérrez (pandereta, ahotsa, dantza, perkusioak) | Garazi Otaegi (pandereta, ahotsa, dantza, perkusioak) | María Lasa (pandereta, ahotsa, dantza, perkusioak)

JARDUERA TURISTIKOAK

Bisita gidatua Julian Gayarrerren mausoleora eta museo-etxera
18.00etan • J.Gayarre museoa. T 948 47 51 80 • info@juliangayarre.com

Mendi-ibilaldiak Belaguan. 10.00etatik 17.00etara, 11 km, maila
erraz-ertaina • Mirua T 608 560 369 • info@mirua.com



ABUZTUAREN 14A, OSTEGUNA | **ARTAXOA**

Parque de la Quinta | 20.30ean | Sarrera dohainik



POPA

ROCK BERRIA HARD, TEKNO ETA ELEKTRO UKITUEKIN

Sonic Toys

Alex Sanz, Xabi Jareño eta Adrián M. Vallejo lagunek Sonic Toys taldea eratu zuten 2011ko abuztuan, Nafarroako beste talde batzuetan aritu eta gero. Elkarrekin hasi ziren rock soinetan arakatzeko eta hurrengo urtean, 2012an, Nafarroako Artista Gazteen Topaketa lehiaketa irabazi zuten. San Adrián musika lehiaketako eta Bilbao hiriko lehiaketako finalistak ere izan dira.

Topaketak egin eta gero bere lehen diskoa prestatzen hasi ziren, eta aldi berean beren musika Nafarroa osoan zehar ezagutarazi zuten. Sanferminetan 10.000 pertsonaren aurrean jo zuten, eta hasierako taldea izan ziren, besteak beste, Rulo y la Contrabanda, Bombo Botrako eta Huecco taldeen kontzertuetan.

Otsailean estudioan grabatu duten lehen diskoa aurkeztu zuten, «Rock» izenekoa; diskoa Isaac Ricok ekoitzia eta José María Rosillok masterizatu da, eta hain zuzen ere, disko horren temak entzuten dira Artaxoan.

TALDEKIDEAK

Alex Sanz: ahotsa eta gitarrak | Xabi Jareño: bateria | Adrián M. Vallejo: baxua eta koruak

JARDUERA TURISTIKOAK

Bisita gidatua Artaxoako zerkora 19.30ean • Ondare Kultureleko gidariak. T 609 936 934 • guiapatrimonio@yahoo.es / cercoartajona@gmail.com



ABUZTUAREN 15A, OSTIRALA **LEIREKO MONASTERIOA**

Eliza | 19.45ean | Sarrera dohainik



ABESBATZA

Coral Liguori

Liguori korua 1989an sortu zen, «Nafarroako Haur Kantariak» eskolaniaren zilarrezko ezkontzak ospatzean. Bere erreperitorioa zabala da eta XIII. mendetik egundaino doan musika polifonikoa biltzen du. Barnean daude musika erlijiosoa, profanoa, folklorea, garaikidea, eta abar. Kontzertuak a capella edo akonpainamendu instrumentalarekin egiten dituzte.

Nafarroako Abesbatzen Federazioko kidea da duela urtebete baino lehenagotik, eta 200 kontzertutik gora eskaini ditu Nafarroan eta bertatik kanpo; zenbait obra estreinatu ditu nazioko zein nazioarteko mailan eta Nafarroako Gobernuaren «Udazkeneko Bira» eta «Cultur» ekitaldien programazioetan parte hartu du.

Bere fundatzailea eta lehen zuzendaria, José María Goicoechea, goi mailako irakaslea da musikaren arloan Donostiako Kontserbatorioan, bai eta Espainiako Musikaren Arte eta Zientzien Akademiako akademiko numerarioa ere. «Vianako Printzea» sarirako izendatu da; 1991, 1992 eta 1993an konposizioaren arloko lehen saria irabazi

zuen Tolosako nazioarteko lehiaketan; eta epaimahaikide gisa aritu da zenbait konposizio-lehiaketatan nazioarteko mailan.

Gaur egungo zuzendariak, Jesús María Olite Ibiricuk, Liquori koruaren fundatzailearen zuzendaritzapean jaso zuen prestakuntza.

JARDUERA TURISTIKOAK

Bisita gidatua monasteriora 17.30ean. Bezperak 19.00etan • Leireko monasterioa T 948 88 41 50 • visitas@monasteriodeleyre.com

Bisita gaizkata eta kabiarraren Pirinea arrain-haztegira Esan, 12.30ean • Leireko monasterioa T 948 88 41 50 • visitas@monasteriodeleyre.com

Lunch aperitiboa, Virilan 14.00etan • Leireko monasterioa T 948 88 41 50 • visitas@monasteriodeleyre.com



ABUZTUAREN 16A, LARUNBATA | **LIZASO**

Orgiko hariztia | 12.30ean | Sarrera dohainik



MUNDU OSOKO HERRI MELODIA TRADIZIONALAK,
HIRU AHOTS EDERREK INTERPRETATUTA

Krinela hirukotea

Cristina Sevillano, Nekane Piñuela eta Laura Echarri abeslari lirikoak eta Jordi Freixa koru profesionaleko zuzendaria elkartuta, Krinela hirukotea sortu zen 2013an.

Taldeak bidaia bat egitera gonbidatzen du hainbat lekutako kantuetan barrena: Euskal Herria, Polinesia, Afrika, Hego Amerika, Errusia, Europa, eta abar. Hiru kantarien ahotsak hain zabala den erreperitorio baten zerbitzura jartzeak kolore sorta zabal batez goatzeko aukera ematen du, kantu bakoitzetik isurtzen den emozioa gauzatzea lortzen baitute.

Helburua da jendeari kulturen aberastasuna musikaren bidez helaraztea, gizakiak ezarri eta notek lausotzen dituzten mugak guztiz ezabatuta.

Krinela taldeko hiru kideek kantu eta pianoari buruzko ikasketak dituzte, eta koru eta talde profesionaleko kide izan dira, baita opera, zartzuela eta errezitaldietan aritu ere. Bere zuzendaria, Jordi Freixa iruindarra, aditua da Europako herri musikaren arloan eta ahots baxuen Etxekoak (Bordele) korua eta ahots zurien Enara (Baiona) koruak fundatu ditu; halaber, Lurra otxoteko kidea eta fundatzailea da. Bakarlarik gisa ere aritu izan da Europako zenbait herrialdetan.

TALDEKIDEAK

Cristina Sevillano (sopranoa) | Nekane Piñuela (mezzoa) | Laura Echarri (altua)

Zuzendaria: Jordi Freixa

JARDUERA TURISTIKOAK

Bisita gidatua Orgiko hariztira 10.00etan • Garrapo. T 620 955 454 • garrapo@garrapo.com



ABUZTUAREN 17A, IGANDEA **LA OLIVAKO MONASTERIOA**

Eliza | 19.00etan | Sarrera dohainik



ABESBATZA

Talde instrumentala eta San José abesbatza

San José abesbatza 1955ean fundatu zen, eta Manuel Elvira aritu zen zuzendari zendu arte. 2001etik Carlos Etxeberria Alonsok zuzentzen du; funtsean ganbera-musikako zuzendaria da, eta Europako hainbat herrialdetan interpretatu du.

Bere errepertorioa honako hauetan guztietan oinarritzen da: kantutegien polifonia anonimoak, XV., XVI. eta XVII. mendeetako egile handiak, hainbat herrialdetako herri musika, eta bereziki, egungo musika interesgarriena, koru eta orkestretarako idatzitako obrekina. XX. mendeko zenbait egileren lanak interpretatzen ditu koruak, besteak beste, R. Halfter, J. Busto, Aita Donosti, Leonard Bernstein, Karl Jenkins eta Etxeberriaren beraren lanak.

Koruak ehunka kontzertu eskaini ditu Nafarroan zehar, eta herrialde osoko aste musikaletan aritu da. Bartzelonan egindako emanaldiak nabarmentzen dira, koru-kantuaren nazioarteko eguneko hogeitaz edizioetan izan baita. Halaber, Frantziako hegoaldean ere kantatu du zenbait alditan.

Taldeak hainbat grabazio egin ditu, eta horien artean «Obras selectas de polifonía» eta «Canciones a lo divino» lanak nabarmentzen dira.

Talde instrumentala duela lau urte sortu zen koruaren emanaldietan laguntzeko. Bere kideak hainbat talde eta orkestratako kide diren instrumentistak dira. Era berean, musika-eskoletako irakasleak dira, bai eta Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko ikasle aurreratuak ere.

PROGRAMA

Morten Lauridsen

Dirait-on

Bob Chilcott

Sakura

The Lily and Rose

John Rutter

Candlelight Carol

Mary's lullaby

Carlos Etxeberria

Ikerren Sehaska-Kanta

Karl Jenkins

And the Mother did weep

(Stabat Mater)

Dies Irae (Requiem)

Agnus Dei (The armed man)

In offer you peace (Peace Makers)

In Dulci Jubilo

JARDUERA TURISTIKOAK

Bisita gidatua monasteriora 17.00etan • La Olivako monasteriorako
bisita T 948 72 50 06 • biblioteca@monateriodelaoliva.org



ABUZTUAREN 18A, ASTELEHENA **ERRIBERRI**

Frantziskotarren eliza | 19.30ean | Sarrera dohainik



GANBARA

Jorge Juan Morata (tenorra) eta Daniel Gutiérrez (pianoa)

Jorge Juan Morata tenorrak –Premio Internazionale Arca d’Oro Giovani Talenti– honako leku hauetan guztietan kantatu du: Madrilgo Auditorio Nazionalean, Valentziako Palau de la Música aretoan, Bilboko Arriaga antzokian eta beste agertoki garrantzitsu batzuetan, baita Alemanian, Eslovenia, Frantzia, Espainia, Italia, Ameriketako Estatu Batuetako eta beste herrialde batzuetako jaialdi batzuetan ere.

Besteak beste, Don Ottavio izan da Mozarten «Don Giovanni» lanean, Alberto kondea Rossiniren «L’Occasione fa il ladro» lanean, eta Paul ere izan da Seymour Barab egilearen «The Toy Shop» lanean. Oratorioaren arloan, J.S. Bach konpositorearen zenbait kantata interpretatu ditu, Vivaldiren «Magnificat» lana, Mozarten «Réquiem» obra, eta abar.

Recóndita Armonía ensemblearen fundatzailea da eta tenor bakarlari gisa laguntzen du, besteak beste, la Chimera, Le Parlement de Musique, Le Tendre Amour eta Nova Lux Ensemble taldeetan.

Daniel Gutiérrez piano-jotzailea pianoaren goi mailako saria da «Pablo Sarasate» musika kontserbatorioan, eta hainbat grabazio egin ditu

Arsis, ACCP eta NB etxeetarako, Hilarión Eslava, Martínez Báguena, Francisco Guerrero, Michael Navarrus, Urban de Vargas, Miguel Irizar eta Larrañaga konpositore espainiarren musikari buruz.

Kontzertu-jardueretan, batez ere Nafarroako Cultur, Udazkeneko eta Udaberriko bira izeneko musika-zikloetan egindako parte-hartzea nabarmentzen da, bai eta Lizarra, Palentzia, Zaragoza eta Santanderreko antzinako musikaren asteetan ere. Bakarleri gisa ere aritu izan da, eta beste kantari batzuei laguntzen ere bai.

PROGRAMA

1. ZATIA

V. Bellini

Vaga luna che inargenti
Ma rendi pur contento
Malinconia ninfa gentile

G. A. Rossini

Un vago semblante
il turco in italia Rossini

G. Donizetti

Una fufiva lagrima
L'Elisir d'amore

G. A. Rossini

Ecco ridente in cielo
Il Barbiere di Siviglia

G. Donizetti

Ah! mes amis
La fille du regiment

2. ZATIA

F. Obradors

Del cabello mas sutil

C. Guastavino

Después que te conocí

A. Ginastera

Canción al árbol del olvido

Joaquín Rodrigo

Adela

Barrera/ Calleja

Adios Granada
Granadinas

F. Moreno Torroba


Tienes razón amigo
La chulapona

R. Soutullo/ J. Vert

Bella enamorada
El último romántico

JARDUERA TURISTIKOAK

Kata lasterra 13.00etan + pintxoak Ardoaren Museoa • Guiarte turismo zerbitzuak T 948 741 273 • info@guiartenavarra.com



ABUZTUAREN 19A, ASTEARTEA | **MARTZILLA**

Gaztelua | 20.00etan | Sarrera dohainik



JAZZA

BESTE ESTILO BATZUEN ERAGINAK DITUEN JAZZA,
HALA NOLA POP, MUSIKA MODAL ETA FREE JAZZ
ESTILOENA EDO SOINU LATINDARRENA

Kike Arza 5et

Honako musikari hauek osatzen dute Kike Arza Quintet taldea: Mikel Andueza (saxo altua), Alberto Arteta (saxo tenorra), Alejandro Mingot (gitarra), Juanma Urriza (bateria) eta Kike Arza (kontrabaxua). Horiek guztiak, banaka hartuta, jazz musikari bikainak dira, baina boskote horrekin talde sendo bat eratzea lortu dute, proiektuaren buru den pertsonaren –Kike Arza, kontrabaxu-jotzailea– konposizioak eta moldaketak bikain garatzen eta interpretatzen badakiena.

Taldeak 2012ko BBK Jazz sarietako Impulso saria lortu zuen «bere proiektio, originaltasun eta kalitateagatik», eta Mikel Anduezak, ibilbide luzea egin duenak –hogeita hamar diskotik gora eta emanaldiak hainbat herrialdetan–, instrumentista onenari emandako saria jaso zuen 2012. urtean.

Cultur jaialdian beren lehen diskoko temak interpretatuko dituzte –«Curriculum» izena du–. Disko horretan boskoteak Arzaren bederatzi

konposizio jorratzen ditu, eta horietan egungo musikaren eragina antzematen da, baita pop, musika modal, free jazz eta musika latindarren estiloena ere. Odd rhythms erritmoz beteta daude, eta kide bakoitzaren nortasun artistikoa aintzat hartuta idatzi da, emaitza gisa ahots propioa duen proiektu bat lortuta.

TALDEKIDEAK

Mikel Andueza: saxo altua | Alberto Arteta: saxo tenorra | Alejandro Mingot: gitarra | Juanma Urriza: bateria | Kike Arza: kontrabaxua

JARDUERA TURISTIKOAK

Bisita gidatua Martzillako gaztelura 19.00etan • Martzillako Udala: 948 71 35 45 • cultura@marcilla.es

Nekazaritzako lanabes zaharren erakusketa gazteluan 19.00etatik 20.30era • Martzillako Udala: 948 71 35 45 • cultura@marcilla.es

Bertako margolanen erakusketa gazteluan 19.00etatik 20.30era



ABUZTUAREN 20A, ASTEAZKENA | **LEKUNBERRI**

Plaza | 20.00etan | Sarrera dohainik



FOLKA

HERRI MELODIAK XXI.
MENDEKO FOLK MUSIKA BATERAKO

Mielotxin

2014an hamar urte beteko dira Mielotxin taldea lehen kontzertuak eskaintzen hasi zenetik; orduan, Nafarroako Artista Gazteen Saria lortu zuen 2004an «Musika berriak» atalean.

Hamar urte horietan beste sari batzuk ere jaso izan ditu, hala nola Eurofolk II. saria Granadan, Ermuako Folkez Blai I. saria, Sopuertako Mendebala I. saria eta Artistas en Ruta saria. Sari horiek, argitaratutako hiru diskoei («Empápate», «Almadierra» eta «Cuando la beharra obliga») eta kontzertuei gehituta, gaur egungo folk nafarraren erreferenteetako bat bilakatu dute. Nafarroatik kanpo, Euskadi, Galizia, Kantabria, Asturias, Aragoi, Madril, Bartzelona, Gaztela eta beste leku batzuetan ere jo dute.

Beste musikari batzuekin batera aritu dira –Hevia, Flook, Eliseo Parra, Trádere, La Musgaña, Berrogüetto eta Shooglenifty– makina bat jaialditan –Intercéltico, Sendim-en (Portugal); Galdamesko Nazioarteko Jaialdia (Bizkaia); Pilar Folk jaialdia (Zaragoza), Ensueños de Folk, Cultur programa 04-07, Artistas en ruta, Mendebala jaialdia (Bizkaia), Zamora edo Milladoiro (A Coruña)–.

Euskadiko eta Nafarroako melodia tradizioaletan oinarritutako musika interpretatzen dute, eta herri instrumentuak erabiltzen

dituzte (txistu, alboka, akordeoia), ahotsekin batera (gaztelaniaz eta euskaraz), berez ahozko tradizioarenak diren kantuetan. Koplak eta jotak presente egoten dira ia beti bere grabazioetan, eta kontzertuetan, batzuetan, dantzariak ere aritzen dira.

Herri musikatik abiatuta, eta Nafarroaren kasuan dibertsitate handiarekin iparraldetik hegoaldera, bere musika munduko instrumentuekin fusionatzen da, proposamen musikal oso fresko, zuzen eta original batean.

TALDEKIDEAK

Iñigo Aguerri: akordeoia, akordina, kalinba eta ahotza | Ismael Yagüe: txistua, alboka, txirula, sintetizagailua eta koruak | Beñat Artze: bateria, kaxoi flamenkoa, bendhirra, derbuka, eskuzko beste perkusio batzuk eta koruak.

JARDUERA TURISTIKOAK

Plazaolako Bide Berdea, oinez edo bizikletaz • Lekunberriko turismo bulegoa T 948 50 72 04 Bizikleten alokairua Plazaolako Kantinan 699 383 287 / 948 604 821 • oit.lekunberri@navarra.es, kantinaplazaola@gmail.com

Bisita gidatua Etxarri-Larraungo Bikain gaztandegira 17:30ean +
Bisita gidatua Lekunberrira 19:00etan • Bikain: 696 923 434 eta
Mitxausenea Kultura Etxea 948 60 45 82 • quesosbikain@gmail.com /
mitxausenea@yahoo.es

Aralarko trikuharrien bidea 15.30ean • Mirua T 608 560 369 • info@mirua.com



ABUZTUAREN 21A, OSTEGUNA | **ORBAITZETA**

Plaza | 20.30ean | Sarrera dohainik



POPA

INDIE MUSIKAREN ETA ROCK
KLASIKOENAREN ARTEAN

Inocua

Pop-rock alternatiboa jotzen duen Iruñeko banda hau 2007an sortu zen eta Jorge García, Javi Fernandez, Isma Virto eta Aitor Nausía lagunek osatuta dago.

Musika anglo-saxoiak eta amerikarrak –The Cure, U2 Joy Division...– eraginda dauden gitarrekin batera, oinarri sendoak eta gaztelaniaz idatzitako letra zuzenak izanen dira. Era berean, inspirazioa bilatu dute talde nazional batzuetan, hala nola Héroes del Silencio, Maga, Fito, Los Piratas edo Elefantes taldeetan.

Bere ibilbide laburrean zehar, hainbat kontzertu eskaini dituzte, eta, besteak beste, Vetusta Morla, We are Standard, Zenttric eta Apnea taldeekin batera aritu dira.

Bere diskografian honako disko hauek topatzen ditugu: «Ep Inocua» (2008) «Ep Volar» (2009), «La llave de los sueños» (2010) eta «Oso» (2013). Azken disko horretan, laukotea sendotu egin da

indie musikaren eta rock klasikoenaren eraginak dituen musika alternatiboaren barnean. Dirudienez, taldeak bere muina eta konexioa aurkitu ditu, musika garbiagoa, naturalagoa eta pertsonalagoa. Sintetizagailu edo bestelako soinu digitalik gabe, bakar-bakarrik bi gitarra, baxu bat eta bateria batekin.

1014ko Actual lehiaketan, Logroñon, Inocua irabazle suertatu zen Banden Gerran Espainia osoko taldeen aurrean, eta horrela bereganatu zuen 2015eko Actual lehiaketan parte hartzeko eskubidea. Sari horrekin nabarmentzen da laukote nafarraren bilakaera, eta sendotu egiten du taldeak egungo panorama musikal nazionalan duen lekua.

TALDEKIDEAK

Jorge García: ahotsa eta gitarra | Javi Fernandez: gitarra eta koruak | Isma Virto: baxua | Aitor Nausia: bateria

JARDUERA TURISTIKOAK

Bisita gidatua arma-fabrikara eta ingurura 18.00etan • Pirineo natura 680 671 142 • pirineonatura@hotmail.com

Iratiko oihanaren historia bertako ibaitik kontatuta 17:30ean • Itarinatura: 660 268 750 • itarinatura@itarinatura.com



ABUZTUAREN 22A, OSTIRALA | **ZANGOZA**

Las Arcadas plaza | 22.00etan | Sarrera dohainik



ZUZENKO ROCK MUSIKAREN
IKUSKIZUNA ETA INDARRA

Smoking Stones

Smoking Stones taldea Bartzelonako rock-banda bat da, Rolling Stones taldeari gorazarre egiten diona 1997tik. Honako kide hauek osatuta dago: Sergio Ortiz, Jean Paul Dupeyron, Luis Arcos, Santi Ursul, Miguel Izquierdo eta Fabrizio Paparello.

Mila kontzertutan aritu izan dira, eta zuzenean ikuskizun handia eskaintzen dute, Stones taldearen eta oro har rock musikaren zaleak erakartzen dituenak. Rock&roll artearen trikimailu guztiak ezagutzeko bezain heldu dira, aldi berean, rock musikaren belaunaldi berriei konektatzeko bezain gazte ere bai. Trebezia handia dute instrumentuekin, eta gainera, bere kantariak –Sergio Ortiz– erakusten duen ahots-indarrak dardarka jartzen ditu entzuleak emanaldi guztietan.

Egundaino bost disko grabatu dituzte: «Classic and new sessions» (1998), Stones taldearen klasiko handiekin; «Spanish shuffle» (2001) gaztelaniaz; «Cocksucker blues» (2006), hamahiru blues eta bi rock&roll zuzenean grabatuta; «Smoking Stones» (2009), kanta propioak dituen lehen diskoa; eta «50 años de satisfacción», Rolling taldearen 50. urtemuga dela-eta grabatuta, besteak beste Gabi Alegret (Los Salvajes), Leiva (Pereza), Ariel Rot, Carlos Tarque (M-Clan), Johnny Burning, Carlos Segarra eta Coque Malla artisten kolaborazioekin.

Sergio Ortiz: ahotsa | Jean Paul Dupeyron: gitarra eta ahotsak | Luis Arcos: gitarra | Santi Ursul: baxua | Miguel Izquierdo: bateria | Fabrizio Paparello: teklatura

JARDUERA TURISTIKOAK

Bisita monumental gidatua Zangozara eta Andre Maria elizara argi eta soinuarekin 18.30ean • Sangüesa Tour 620 110 581 • info@sanguesaturismo.com

Bisita argi eta soinuarekin Andre Maria elizara 10.00etatik 13.30era eta 16.00etatik 18.30era • Sangüesa Tour 620 110 581 • info@sanguesaturismo.com



ABUZTUAREN 23A, LARUNBATA | **AGOITZ**

Kultura Etxea | 22.00etan | Sarrera dohainik



AHOTS HUNKIGARRIAK ETA OPERA-ROCKEKO
BENETAKO IKUSKIZUNA

Elfenthal

Europar barna denbora luzea eman eta gero, Elfenthal taldearen rock-opera bere zuzendariaren –Maite Aoiz, sopranoa eta konpositorea– lurraldera itzuliko da berriz ere, nafar guztiei bere eszenaratze sendo eta magikoaz gozatzeko beste aukera bat emanda.

Elfenthal talde paregabea da, adin guztietako entzuleengana indarrez iristeko gauza dena. Bi zutabetan bermatzen da: batetik, Maite Itoiz, sopranoa eta gitarra-jotzailea, zenbait ensembletan parte hartu duena bakarlari gisa operaren munduan; eta bestetik, John Michael, manager eta kantaria, folk, pop eta rock musikan ibilbide luzea egin duena. Haiekin batera, rock-bandarekin batera dantzariak eta aktoreak ere izaten dira, ikuskizunaren arabera aldatzen direnak.

Bere diskografian «Tales from the Secret Forest» eta «The Blue Elf's Dream» aurkitzen ditugu rock-opera estiloan, eta «An Ancient Story» Elfenthal antzinako musikaren Ensemble gisa.

Bere ikuskizunetan rock sinfonikoa eta zelta, musika neoklasikoa eta balleta batzen dira, eta ahots sendoak ere bai, mundu klasikoaren eta heavy ukituko rockaren arteko oreka zainduta; eta hori guztia atmosfera magiko eta epiko batez, eta showaren ardatza den istorio batekin.

Taldeak lan onenak aurkeztuko ditu Agoziko agertokian, lehen diskotik hasi –lehen Europa erdialdeko zenbait zerrendatan– eta orain arte ezezaguna den musikaraino. Zirrara handiak ziurtatuta daude bere erreperitorio harrigarri, ahots-kalitate, koreografia eta eszenaratzeei esker.

JARDUERA TURISTIKOAK

Bisita gidatua San Migel elizara 17.30etik 19.30era • Agoitzko Udala.
T. 637 448 107 • prepirineo@cederna.es

Jaitsiera baltsaz Irati ibaitik eta Ilunberrin, 10.00etan eta 15.00ean •
Nattura 948 13 10 44 / 671 247 596 • info@nattura.com



ABUZTUAREN 24A, IGANDEA | **UXUE**

Andre Maria eliza | 12.30ean | Sarrera dohainik



ABESBATZA

ANDRE MARIAREN MUSIKA,
GARAI ETA EGILE DESBERDINENA

Aranguren ibarreko korua

Aranguren ibarreko korua, 1993an fundatua, gutxi gorabehera berrogei ahots mistok osatuta dago, eta 2001etik, Gonzalo Esparza da bere zuzendaria. Errepertorioa pieza erlijiosoetatik herri musikara doa, eta koru-kantuaren garai guztietako lan garrantzitsuak biltzen ditu, Errenazimentutik egundaino.

Korua bere kontzertu eta emanaldi bariatuen ziklo bat antolatzen du urtero, eta, gainera, Nafarroako Gobernuako Kultura Departamentuak antolatzen dituenetan ere parte hartzen du, bai eta beste entitate publiko zein pribatu batzuek antolatutakoetan ere. Hogeitaz baina gehiago emanak dituzte bidean, eta Nafarroako makina bat herritan jo du, Espainiako zenbait erkidegotan (Valladolid, Errioxa, Zaragoza...), baita Bruselako Cervantes institutuan ere.

Bere zuzendari Gonzalo Esparzak goi mailako ikasketak egin ditu «Pablo Sarasate» kontserbatorioan, eta koru zuzendaritzako ikastaroak egin ditu Irunen, musika analisiari buruzkoak Valentzian, eta Musikaterapiaren aditua da EHU-n.

Uxueko kontzertuan, korua «a capella» egindako kantuak eta talde-diziplina batzuk tartekatuko ditu, esaterako ahotsa, ahotsa eta instrumentazio heterogeneoa, ahotsa eta ganbera-taldeak, eta abar. Programa, hiru zatitan banatuta, Andre Mariaren irudiaren ingurukoa da, santu, andre eta ama gisa jorratuta.

PROGRAMA

1.- AVE MARÍA

Ave María (**Monodia**)

Ave María (**T.L. Victoria** s. XVI)

Ave María (**J. Arcadelt** s. XVI)

Ave María (**A. Bruckner** s. XIX)

Bogoriditse Devo

(**S. Rachmaninov** s. XX)

2.- AVE MARIS STELLA

Ave Maris Stella (**Monodia**)

Ave Maris Stella (**P. Donostia**)

Ave Maris Stella (**Grieg**)

3.- STABAT MATER

Stabat Mater (**Gregoriano**)

Stabat Mater

(**Francés de Iribarren**)

Stabat Mater (**Kódaly**)

JARDUERA TURISTIKOAK

Bisita gidatua gotorleku-elizara + bisita nekazaritzako dendara 10.30ean

• Dinamic Eventos 948 21 15 54 / 618820414 • visitaujue@gmail.com



ABUZTUAREN 25A, ASTELEHENA | **GARES**

San Pedro eliza | 20.30ean | Sarrera dohainik



GANBARA

Amaia Azcona, soprano, eta Maite Ascunce, pianoa

Amaia Azcona sopranoak kantu eta gitarraren gaineko ikasketak egin zituen «Pablo Sarasate» kontserbatorioan, eta oso irakasle garrantzitsuak izan ditu, hala nola María Bayo, Ileana Cotrubas, David Moss, María Grazia eta Helen York. Nafarroako Gobernuak beka emanda kantuari buruzko master bat egin zuen Londresko Guindhall School of Music and Drama kontserbatorioan.

«Lillian Ash French Song Competition» kantu frantziarraren lehiaketa irabazi zuen, eta honako orpera hauetako protagonista ere izan da Iruñeko Gayarre antzokian eta Bilboko Arriagan: «Hänsel un Gretel», Humperdick egilearena; «Alí Babá y los Cuarenta Ladrones», Iñigo Casálírena; eta «El Guardián de los cuentos», Miquel Ortegara. Halaber, Barbarina ere izan da «Le Nozze di Figaro» (Mozart) lanean Baluartan, eta Micaela «Carmen» (Bizet) lanean Erresuma Batuko zenbait antzokitan.

Maite Ascunce, pianoaren katedraduna da Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan; goi mailako gradua Parisen ikasi zuen Pierre Audonekin, eta Aldo Ciccolini eta Manuel Carra izan ditu irakasle.

Bigarren saria lortu zuen «Concours de la Ville de Paris» lehiaketan eta irabazlea izan zen Nafarroako Gobernuaren interpretazio-lehiaketan 1985ean; Parisko neguko jaialdietan parte hartu du eta Frantziako irratiko nazionalerako grabatu ere bai, baita Helena Tabernaren «Emiliana de Zubeldía» ikus-entzunezkoaren soinu-bandarako ere.

Bere ibilbidean zehar, hainbat errezitaldi eskaini ditu, bai pianoa jotzen, bai zenbait ganbera-taldetan.

JARDUERA TURISTIKOAK

Bisita gidatua alde historikora, urratsez urrats 18.30ean •
Garesko turismo bulegoa. 948 34 13 01 / 659 187 680 • turismo@
puentelareina-gares.es



ABUZTUAREN 26A, ASTEARTEA | **LIZARRA**

Kultura Etxea | 20.30ean | Sarrera dohainik



JAZZA

BOSKOTEAK BESTE EGILE BATZUEN BERTSIOAK
INTERPRETATZEN DITU, BAITA BERE LAN BATZUK
ESKAINI ERE

Smuz Quintet

2012ko erdialdean, Ramón García Olcoz (tronpeta), Ramón García Lara (pianoa) eta Luisa Brito (kontrabaxua) lagunek Smuz trio taldea osatu zuten; Cool jazz estiloa maite zuen taldea zen, Chet Bakern tronpeta-jotzaile eta abeslari estatubatuarra eta Stan Getz jazz musikako saxo-jotzailea inspirazio-iturri dituen. Hilabete batzuk geroago, Daniel Lizarraga bateria-jotzailea taldean sartu zen, eta Smuz Quartet deitzera igaro zen; eta, azkenik, Iñaki Rodríguez saxo-jotzaile eta konpositore nafarra sartu zen taldean. Eraitza, soinu trinkoa, garbia eta karrankarik gabe eskaintzen duen boskote bat; izan ere, interpreteak buru-belarri aritzen dira etengabeko komunikazioa lantzen duen atmosfera bat sortze aldera.

Smuz Quintet taldeko bost kideek musika arloko prestakuntza zabala dute, eta beste talde, proiektu, laguntza eta emanaldi batzuetan ere aritu izan dira beren ibilbide profesionalan, besteak beste, Donostiako Jazzaldian, Getxoko jazz-jaialdian edo Iruñeko jazz-jaialdian.

Konposizio propioak, tema standarden bertsioak, kantu tradizionalak eta egilearenak entzuten ahal dira bere erreperatorioan.

TALDEKIDEAK

Ramón García Olcoz: tronpeta | Iñaki Rodríguez: saxofoia | Ramón García Lara: pianoa | Luisa Brito: kontra-baxua | Daniel Lizarraga: bateria

JARDUERA TURISTIKOAK

Bisita gidatua hirira + boilur-pintxo eta ardoa 18.00etan Navark:
948 55 50 22 • info@actividadesnavarra.com eta visitas@navark.es

Bisita gidatua San Pedro Rua elizara 17.00etan • Navark: 948 55 50 22
• info@actividadesnavarra.com / visitas@navark.es

Bisita Metautengo boilurraren museora + dastatzea 11:30ean
• Navark: 948 55 50 22 / 948 54 01 02 lar. eta igan. 10:00etatik
14:00etara • info@museodelatrufa.com



ABUZTUAREN 27A, ASTEAZKENA **ALTSASU**

Dantzalekua | 21.00etan | Sarrera dohainik



FOLKA

«EUSKAL AHOTSAK» ARRAKASTA MUSIKAL
HANDIA FRANTZIAN

Anne Etchegoyen eta Aizkoa korua

Anne Etchegoyenen ahots goxo eta indartsuak Frantzia konkistatu du. Gaztea Donapaleun sortu zen (Nafarroa Beherea), eta sustraiak Erratzun (Baztan) ditu, eta arrakasta itzela lortu du «Les Voix Basques» diskoarekin, Baionako Aizkoa gizonen koruarekin batera grabatuta. Albumak euskal folklorearen kantu tradizionalak eta Etchegoyenen kantuek –gaztelaniaz, euskaraz eta frantsesez– eskaintzen ditu. Lana urrezko diskoa izan da Frantzian, eta 2013ko hamar disko salduenen artean sartu da; gainera «Hegoak» bere singlearen bideoklipak, Mikel Laboaren «Txoria Txori» kantuen bertsiok, 350.000 bisitatik gora izan ditu Youtube atarian.

Etchegoyen kantariaren arrakasta handia ez da soilik Frantzian izan, beste leku askotan ere kontzertuak eskaini baititu, hala nola Argentinan, Ameriketako Estatu Batuetan, Ingalaterran, Irlandan, Madrilan, Bartzelonan, Sevillan, Malagan eta Euskadin.

Ipar Euskal Herrian tradizio musikal handia dago batez ere gizonezkoen artean, baina Anne Etchegoyen bere herriko koruan

kantatzen hasi zen zortzi urte besterik ez zuela. Geroago, Baionako eta Bordeleko kontserbatorioetan jaso zuen prestakuntza. Lirika ardatza izandako erreperitorio baten ondoren, beste eragin eta estilo musikal batzuetara ere zabaldu da, eta euskal musikaren tradizioak garrantzi handia du horretan. Orain arte lau disko grabatu ditu, bi bakarlari gisa –«Pachamama» (2008) eta «Adelante» (2010)– eta beste bi Aizkoa koruarekin batera –»Les voix célestes du Pays Basque chantent Noël» (2005) eta aipatu dugun «Les Voix Basques» hori–.

Bere aldetik, Aizkoa korua, Patrick Bétachetek zuzenduta, 2001ean sortutako taldea da Dringilindron ekimen kulturalaren barnean. Otxote horrek antzinako euskal kanteak, gaur egungo euskal temak, pieza erlijiosoak eta Errusiako melodia batzuek osatutako erreperitorioa interpretatzen du. Bere ibilbide laburrean hainbat kontzertu eskaini ditu, batez ere Zuberoan eta jaialdi anitzetan –Otxoteen Portugaleteko III. jaialdia, Vieux musika jaialdia Lyonen, herrien jaialdia Canet Roussillon-en, Souche jaialdia Generac-en, eta abar. Era berean, oso ikuskizun jendetsuetan ere parte hartu du Baionako antzokian eta Parisko Olimpia aretoan, betiere Etchegoyenekin batera.

JARDUERA TURISTIKOAK

Paseoa zaldiz Urdiaingo eta Altsasuko hariztian barna 10.00etatik 17.30era • Errotain Zalbi Ibilaldiak 687 424 839 eta 626 749 149 • errotain@gmail.com

Mendi-ibilaldia: Urbasa «Pagadi sorgindua» 10.30ean • Mirua T 608 560 369 • info@mirua.com



ABUZTUAREN 28A, OSTEGUNA **MENDIGORRIA**

Foruen plaza | 20.30ean | Sarrera dohainik



POPA

SEKULA ZAHARKITZEN EZ DEN MUSIKA

Triple Sentido

Triple Sentido taldeko kideek prestakuntza musikal eta esperientzia handia dute hainbat estilotako musika-proiektuetan. Bere erreperitorioan kantu ezagunen bertsioak daude, adibidez, Metallica, Frank Sinatra, Leonard Cohen, Serrat edo Bob Marley egileenak.

Claudia Osés biolinaren arloan lizentziatu zen Euskadiko «Musikene» goi mailako kontserbatorioan, eta geroago ikasketa horiek osatu zituen graduondoko ikastaro batekin –biolinean hori ere– Bartzelonako «Liceo» kontserbatorioan. Nebari hari-laukoteko kidea da, eta beste talde batzuetakoa ere bai: NadantaMusic, «A Capriccio» ganbera-taldea, Kammerphilharmonia –Euskadi– eta Esencia Flamen-K

Miren Garbayok erdi mailako titulua du biolontxeloaren arloan «Pablo Sarasate» Musika Kontserbatorioan, eta lizentziaduna da musika hizkuntzaren pedagogian Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan. Euskadiko gazte orkestrako (EGO) eta Pablo Sarasate gazte orkestrako kide titularra izan da, eta Nebari laukoteko kide fundatzailea.

Pedro Planillo oso gaztea zela hasi zen gitarra-ikasketak lantzen, eta laster erakutsi zuen flamenkoa bereziki maite zuela, Carlos Itoiz maisuaren eskutik. Zenbait artistarekin lan egin du musika-moldaketak egiten, eta gaur egun zenbait musika-proiektutan sartuta dago; horietan, flamenkoa beste estilo batzuekin fusionatzen da, besteak beste, jazz latindar, bossa-nova edo pop estiloekin.

Luisa Brito kontrabaxu-jazz arloko ikasketekin hasi zen 1999an Bartzelonako Taller de Músics eskolan, eta lizentziatura Euskadiko Musikene goi mailako eskolan bukatu zituen. Master class-etan egon da artista handiekin eta hainbat jaialditan parte hartu du, besteak beste, Donostiako Jazzaldian.

TALDEKIDEAK

Miren Garbayo: ahotsa eta biolontxelo | Claudia Oses: biolina | Luisa Brito: kontrabaxua | Pedro Planillo: gitarra eta ahotsa

JARDUERA TURISTIKOAK

Bisita gidatua Andelosko indusketa-lanetara eta museora
18.00etan • Andelosko hondakin erromatarrek: 948 74 12 73 • info@guiartenavarra.com



ABUZTUAREN 29A, OSTIRALA | **DONAMARIA**

Jauregia dorrea | 19.30ean | Sarrera dohainik



MUSIKA BILAKATZEN DIREN BERTSOAK

Nua Trío

Honako lagun hauek osatzen dute Nua Trio taldea: Mû, musikari, kantautore, konpositore eta poeta ginearra; Luisa Brito, jatorri mozambiketarreko musikaria; eta Lizarran sortu baina Madrilén bizi den Jesús Mañeru musikaria. Taldeak ahotsa eta musika ematen dizkie mundu osoko poema ezezagunei. Errima, akorde eta sustrai artistiko eta genetikoak dira artista-hirukote honen elementu garrantzitsuenak, bai eta beren errealitate berriarenak ere –bai musikala, bai kulturala–. Mûk eta Britok Afrikako ukitua eta jazzaren sormena ematen dituzte, eta Mañeruk, bestalde, flamenko errotuenaren estetikatik iritsi baita, tradizioa ulertzeko modu berezi bat sartzen du.

Bere lehen lana –»Casa Nua»–, Ana Patricio lisboarraren bertsoak omentzen ditu, eta gai asko eta asko erretratatzeko, hala nola askatasuna, introspektzioa, amatasuna, klaseen arteko borroka edo iluntasuna eta pertsona bakoitzaren baitan daramagun argia ere bai. Akustika, letrak eta taldekideen arteko harremana bera tentuz zaintzen dira, eta ondorioz, entzuleen zentzumenak ernatzea lortzen du lan horrek. Gainera, tema zehatz batzuetan, honako laguntzaile

hauek ere izaten dituzte: haize-hirukote bat (Iñaki Rodríguez, Fran Mangas eta Juan Carlos Aracil), Javier Colina kontrabaxu-jotzailea, Ana Salazarren ahotsa eta dantza, eta Toni Managas marinba jotzen.

TALDEKIDEAK

Mû: ahotsa, sinbia eta gitarra | Luisa Brito: kontrabaxua | Jesús Mañero: perkusioa

JARDUERA TURISTIKOAK

Bisita gidatua Jauregia dorrera 18.00etan • Bertizko Turismo Partzuergoa. 669 688 542 • bertiz@consorciobertiz.org



ABUZTUAREN 30A, LARUNBATA **BARAÑAIN**

Auditorioa | Sarrera: 17 € palkoa eta 22 aretoa (aurreratua)
eta 20 € eta 25 € (egunean berean)



BAILAR EN LA CUEVA

Jorge Dréxler

1995etik Espainian bizi den kantari eta konpositore uruguaiarrak bere azken diskoa aurkezten du, «Bailar en la cueva»; albuma erritmikoagoa da, gehien-gehiena dantzatzeko modukoa ere bai, eta Caetano Velosoren, Ana Tijoux rap-kantariaren eta Bomba Estéreo taldearen kolaborazioak ditu. Lan berri horren oinarria Bogotá grabatu zen, musikari kolonbiarren laguntzaz eta Mario Galeanoren eskutik; azkeneko grabazioa Madrilén egin zen ohiko bandarekin.

Estudioan grabatutako azken diskoa, «Amar la trama», 2010ean argitaratu zen, baina azken lau urtean Jorge Dréxler beste hainbat proiektutan murgildu da. «Andar la trama» arrakasta handiko biraren ondoren –70 kontzertutik gora hamar herrialdetan–, bira berri bati ekin zion («Mundo Abisal»), hain zuzen ere, bere lehen diskoa argitaratu zuenetik 20 urte betetzen zirenean. Gainera, aktore gisa egindako lehen lana interpretatu du «La suerte en sus manos» filmean, eta errebelazio-aktore onenaren sarirako izendatuta egon zen Argentinako Sur sarietan; bere lehen balleta ere idatzi du: «Tres Hologramas». 2012ko bukaeran «n» proiektua abiarazi zuen; artistaren jatorrizko konposizio bat da, entzuleek interbenitu ditzaketenak bere tablet edo smartphoneetan.

Dréxlerrek eskarmentu musikal handia du, baita ere, zinemaren munduan. 2005ean jatorrizko kanta onenari emandako saria lortu zuen «Al otro lado del río» kantuagatik –»Diarios de motocicleta» filmaren soinu-banda–; lau urte geroago, soinu-banda eta zenbait tema idatzi zituen James Ivoryren «The city of your final destination» filmerako;

eta 2011n jatorrizko kanta onenari emandako Goya saria lortu zuen «Lope» kantuatik.

Gainera, Uruguaiko kantautoreak lan asko konposatu ditu hainbat eta hainbat artistarentzat, besteak beste, Mercedes Sosa, Shakira, Ana Belén, Pablo Milanés, Neneh Cherry, Miguel Ríos, Sole Jiménez, María Rita, Simone, Jaime Roos, David Broza edo Paulinho Moskarentzat.

ABUZTUAREN 31, IGANDEA | **TUTERA**

Gaztambide antzokia | Prezioa 17 € anfi teatroa, 22 € platea



AHOTS SENDOA ETA GARBIA, MUNDU OSOKO
ENTZULEAK LILURATU DITUENA

Noa

Ajinoam Nini, mundu osoan Noa izen artistikoaz ezaguna, Israelgo kantari eta konpositorea da, sustraiak Yemenen dituen baina Ameriketako Estatu Batuetan hazitakoa bada ere. Zortzi urte baizik ez zituela hasi zen lehen melodiak sortzen, eta 17 urterekin New Yorkeko arte eskola utzi eta sorlekura itzuli zen, Israelera.

1990etik, bikote artistikoa osatzen du Gil Dor gitarra-jotzaile eta konpositorearekin. Bere musikak Paul Simon, Joni Mitchel, Leonard Cohen eta 1960ko hamarkadako beste kantautore ditu inspirazio-iturri, bai eta musika klasikoa, rocka edo Yemengo melodia tradizionalak ere.

15 urteko ibilbidean, Gil eta Noa arrakasta handiko lau disko israeldar ekoitzi dituzte, eta nazioarteko beste lau ere bai. Gainera, Noa Israel Philharmonic Orchestra eta Solis String Quartet-ekin batera zuzenean grabatutako albumak kaleratu ditu, eta bi film hauetako musika egiten ere parte hartu du: «Babel», Frantzia arrakasta handia lortu zuena; eta «La vida es bella», soinu-banda onenari emandako Oscar sariaren irabazlea.

Mundu osoan zehar egindako biretan, besteak beste, Parisko Olympia, New Yorkeko Avery Fisher Hall eta Londresko Barbican aretoetan aritu da. Maila handiko musikariek aritu da, hala nola Sting, Carlos Santana, Johnny Clegg, Patrick Bruel, Stevie Wonder eta Joan Manuel Serratekin. Era berean, ezaguna da bakearen eta gizarte aferen alde hartu duen konpromisoa, eta horrela, artista arabiar eta palestinarrekin batera kantatu du, eta ongintzako zenbait kontzertutan ere parte hartu du.

Gaur egun, Noa, Gilekin batera, berak ekoiztitako lehen diskoa prestatzen ari da, «Love Medicine» izena duena.

JARDUERA TURISTIKOAK

Tuteran barrena 11.00etan eta 18.00etan • Udala 948 41 71 00 • turismo@tudela.es

Bisita Muñoz Sola museora 10.00etatik 13.00etara Museo 948 40 26 40 • museomunozsola@tudela.es

Bisita gidatua Cortesko gaztelura 12.00etan eta 12.30ean • Cortesko Udala 676 381 563



CULTUR 2014 GENEROEN ARABERA

ABESBATZA

Orreaga/Roncesvalles	IGANDEA 03	Elkhos Ahots Taldea
Irantzuako monasterioa	IGANDEA 10	Oberenak Korua
Leireko monasterioa	OSTIRALA 15	Liguori Korua
La Olivako monasterioa	IGANDEA 17	San José Abesbatza
Ujué	IGANDEA 24	Aranguren Ibarreko Korua

GANBARA

Los Arcos	ASTELEHENA 04	Joaquin Asiain & Kamako Kimura
Bera	ASTELEHENA 11	Igor Peral & Gonzalo Trevijano
Erriberri	ASTELEHENA 18	Jorge Juan Morata eta Daniel Gutiérrez
Gares	ASTELEHENA 25	Amaia Azkona eta Maite Ascunce

FOLKA

Otsagabia	ASTEAZKENA 06	Kalakan
Izaba	ASTEAZKENA 13	Kepa Junkera «Sorginak»
Lekunberri	ASTEAZKENA 20	Mielotxin
Altsasu/Alsasua	ASTEAZKENA 27	«Les Voix Basques/Las Voces Vascas» Anne Etchegoyen eta Aizkoa Koruarekin

JAZZA

Tafalla	ASTEARTEA 05	Jerez Texas
Fitero	ASTEARTEA 12	Javier Lopez Jaso-Marcelo Escrich Quartet
Marcilla	ASTEARTEA 19	Kike Arza 5et
Estella-Lizarra	ASTEARTEA 26	Smuzquintet

POPA

Viana	OSTEGUNA 07	Serafin Zubiri
Artajona	OSTEGUNA 14	Sonic Toys
Orbaizeta	OSTEGUNA 21	Inocua
Mendigorría	OSTEGUNA 28	Triple Sentido

BESTEAK

Iruña	OSTIRALA 01	Jazzy Leap Nafarroako Ganbera Abesbatza «Duke Ellington»
Elizondo	LARUNBATA 02	Betagarri
Zugarramurdi	OSTIRALA 08	Akelarre Tierra-Euskal Herriko Txistulari Elkarte
Javier Auditorioa	LARUNBATA 09	Ortzadar Euskal Folklore taldea «Librea Ninçana»
Lizaso	LARUNBATA 16	Krinela Hirukotea
Zangoza	OSTIRALA 22	Smoking Stones
Agoitz	LARUNBATA 23	Elfenthal-opera rocka
Donamaria	OSTIRALA 29	Nua Trío
Barañain	LARUNBATA 30	Jorge Drexler
Tudela	IGANDEA 31	Noa

**ERRE
SUMA
KO BI
DEAK**



IRANTZUKO MONASTERIOA



FITERO



IZABA



VIANA



GARES



ZANGOZA



DONAMARIA




LEIREKO MONASTERIOA



ALTSASU/ALSASUA



MENDIGORRIA



AGOITZ



TUDELA



BARAÑAIN



BERA



LEKUNBERRI



ERRIBERRI



OLIBAKO MONASTERIOA



ESTELLA/LIZARRA



TAFALLA



Nafarroako Erresuma
Nafarroa



**Nafarroako
Gobernua**



cultura
navarra.es